



IMDERMUA

Udal Kirol Erakundea
Instituto Municipal de Deportes

**ERMUKO UDAL KIROL ERAKUNDEA TOKIKO
ERAKUNDE AUTONOMOAK KUDEATU
ETA ADMINISTRATUTAKO UDAL KIROL
INSTALAZIOEN ERABILERA-ARAUDIA**

INDIZEA

SARRERA	7
LEHEN TITULUA. XEDAPEN OROKORRAK	
1. artikulua.— Xedea	9
2. artikulua.— Aplikazio-eremua	9
BIGAREN TITULUA. KIROL INSTALAZIOEN ERABILTZAILEAK	
I. KAPITULUA. ERABILTZAILEAK	
3. artikulua.— Erabiltzaile kontzeptua	9
4. artikulua.— Erabiltzaile-motak	10
5. artikulua.— Erabiltzaileen abonatuak	10
6. artikulua.— Abonatu gabeko erabiltzaileak.....	11
7. artikulua.— Erabiltzaile ikastarogileak.....	12
8. artikulua.— Erabiltzaile, abonatu gabeko erabiltzaile eta ikastarogileentzako arauak	16
9. artikulua.— Erabiltzaile kolektiboak	17
10. artikulua.— Lehiaketa ofizialetan izena emandako kirolari federatuak eta eskola-kirolariak	18
II. KAPITULUA. ERABILTZAILEEN ESKUBIDE ETA BETEBEHARRAK	
11. artikulua.— Erabiltzaileen eskubideak.....	18
12. artikulua.— Erabiltzaileen betebeharrak	19
III. KAPITULUA. DATU-BABESA	
13. artikulua.— Datuak babesteko politika.....	20

IV. KAPITULUA. ASEGURUAK

14. artikulua.— Erantzukizun zibileko aseguruak	20
---	----

V. KAPITULUA. IRADOKIZUN-ORRIAK ETA GALDUTAKO GAUZAK

15. artikulua.— Iradokizun-orriak	20
16. artikulua.— Galdutako gauzak	21

HIRUGARREN TITULUA. ERRESERBA ERREGIMENA ETA INSTALAZIOEN ERABILERA

VI. KAPITULUA. ERRESERBAK ETA INSTALAZIOEN ALOKAIRUA

17. artikulua.— Erreserbatzeko arau orokorrak	21
18. artikulua.— Erreserbak itzultzea eta aldatzea	22
19. artikulua.— Erabilera libreko guneak	22
20. artikulua.— Erabiltzaile abonatuaren erreserba eta alokairuak	23
21. artikulua.— Abonatu gabeko erabiltzaileen erreserba eta alokairuak	24
22. artikulua.— Erabiltzaile kolektiboaren erreserba eta alokairuak	24
23. artikulua.— Lehiaketa ofizialetan izena emandako kirolari federatuaren eta eskola-kirolarien erreserba eta alokairuak	24

VII. KAPITULUA. INSTALAZIOAK ERABILTZEKO ARAU ETA BALDINTZAK

24. artikulua.— Erabilera-arau orokorrak	24
25. artikulua.— Publizitatea kirol-instalazioetan	26
26. artikulua.— Debeku orokorrak	26
27. artikulua.— Armairuak eta jantzitegiak	27
28. artikulua.— Aldagelak	28
29. artikulua.— Informazio- eta harrera-zerbitzua	29
30. artikulua.— Botikina	29
31. artikulua.— Igerileku estaliak	29
32. artikulua.— Gune hidrtermala	32
33. artikulua.— Sauna eta lurrun-bainua	32
34. artikulua.— UVA izpien kabina	34

35. artikulua.— Fitness-aretoa arau komunak.....	35
36. artikulua.— Muskulazioko oinarrizko gimnasioa	36
37. artikulua.— Pertsona federatuentzako muskulazio-gimnasioa	36
38. artikulua.— Jarduera zuzenduen aretoak	37
39. artikulua.— Frontoiak eta squash-aretoak	38
40. artikulua.— Atletismo-pistaeta jauzietarako modulu estalia.....	38
41. artikulua.— Eskalada-murrua eta boulder-a.....	39
42. artikulua.— Belar artifizialeko zelai handiak.....	41
43. artikulua.— Bilera-gelak.....	41
44. artikulua.— Pabilloi estaliak	41
45. artikulua.— Altzari eta tresnen alokairua	42
46. artikulua.— Kiroletakoak ez diren ekitaldietarako alokairuak.....	42

LAUGARREN TITULUA. DISZIPLINA-ERREGIMENA

X. KAPITULUA. ARAU HAUSTEAK ETA ZEHAPENAK. ZEHAPEN PROZEDURA

47. artikulua.— Hutsegiteak eta zehapenak.....	45
48. artikulua.— Hutsegiteak	45
49. artikulua.— Zehapenak.....	46
50. artikulua.— Zehapenen preskripzioa	47
51. artikulua.— Hutsegite larriak edo oso larriak zehatzeko prozedura	47
52. artikulua.— Hutsegite arinak zehatzeko prozedura	49

BOSGARREN TITULUA. AZKEN XEDAPENAK

53. artikulua.— Artikulu osagarriak.....	49
54. artikulua.— Ebazpenak.....	50

SARRERA

Ermuko UKE Ermuko Udalaren mendeko organismo publikoa da. Udalerriko kirol-sistema antolatuta eta dinamizatzen du, baldintza-berdintasunean Ermuko herritar guztiarentzat, eta bizitza-ohitura osasungarriak sustatzen ditu. Horretarako, kirola eta jarduera fisikoa bultzatzen ditu, herritarren osasuna, bizi-kalitatea eta gizarte garapena hobetze aldera.

Ermuko UKEk erreferentzia izan nahi du Euskadin, osasunaren, jarduera fisikoaren eta kirolaren arloetan gizarte-erantzukizuna duen erakunde gisa:

- ematen duen zerbitzuaren kalitateagatik
- zerbitzu-eskaintza herritarren beharrekin bat datorrelako
- bezeroen eta pertsonen gogobetetze-mailagatik
- eta kudeaketa garden, bizkor eta berritzaileagatik

Ermuko UKEn, erakunde osoko kideek aintzat hartutako printzipio eta balio hauek dira eguneroko zereginen oinarri:

1. Erabiltzaileei zerbitzua
2. Errespetua, duintasuna eta ohorerako eskubidea
3. Konpromisoa
4. Gizarte-erantzukizuna

LEHEN TITULUA

XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua.— Xedea

Araudi honen xedea da Ermuko Udal Kirol Erakundearen [aurrerantzean, Ermuko UKE] instalazio eta zerbitzuen erabiltzaileen eskubide eta betebeharrak arautzea, bai eta instalazio eta zerbitzu horiek zer baldintzatan erabili ahal izango dituzten zehaztea ere.

Araudi hau eta urteko arau guztiak (ordutegiak, tasak...) jendaurrean jarriko dira, bai Ermuko UKEn bulegoetan, bai instalazioetako harrera-mahaietan.

2. artikulua.— Aplikazio-eremua

Emuko UKEk instalazioak gobernatzeko eta administratzeko ahalmena du, eta horrez gain, erabilera-mugak ezartzeaz, programazioaz, ikuskapenaz, kudeaketaz eta diziplinaz arduratzen da.

Araudi hau Ermuko Udalak Ermuko UKEn kudeaketaren eta administrazioaren pean jarritako kirol-instalazio guztietan aplikatuko da.

Instalazio horietan banaka edo kolektiboki sartzek araudi honetako arauak onartzea du berekin.

Baldin eta, instalazioak behar bezala erabiltzeko araudi

honetan agindutakoa argitzeko, aldatzeko edo garatzeko, barne-araurik, xedapenik edo ebazpenik ematen bada, berehala aplikatuko da, instalazioetako langileen ohar eta argibideak alde batera utzi gabe.

Araudi honetan aldaketarik eginez gero, behar bezala argitaratuko da, ahalik herritar gehienek izan dezaten horren berri.

BIGARREN TITULUA

KIROL INSTALAZIOEN ERABILTZAILEAK

I. KAPITULUA. ERABILTZAILEAK

3. artikulua.— Erabiltzaile kontzeptua

Araudi honi dagokionez, hau hartzen da erabiltzailetzat: Ermuko UKEn ardurapeko instalazioak erabili, hark sustatutako jardueretan parte hartu eta/edo kirol-guneak alokairu edo lagapen bidez erabiltzen dituen pertsona fisikoak edo erakundeak.

Erabiltzaileekin doazen pertsonak eta ikusleak erabiltzaile pasibotzat hartuko dira; pertsona horiei ere arau hauek aplikatuko zaizkie, instalazioetan dauden bitartean izan dezaketen erantzukizunaren arabera.

3 urtetik beherakoak doan sartuko dira Ermuko UKEn kirol-instalazioetan.

4. artikulua.— Erabiltzaile-motak

Erabiltzaile hauek bereiziko dira:

- a. Erabiltzaile abonatuak
- b. Abonatu gabeko erabiltzaileak
- c. Ikastaroak egiten ari diren erabiltzaileak
- d. Erabiltzaile kolektiboak
- e. Lehiaketa ofizialetan inskribatutako kirolari federatuak edo ikasleak

5. artikulua.— Erabiltzaile abonatuak

Hauek izango dira erabiltzaile abonatuak: alta-eskaera formalizatu eta abonatua dela egiaztatzen duen kirol-txartela duen pertsona fisiko oro, aurtengo aldiari dagokion kuota ordainduta duena. Ez da beharrezkoa Ermuan erroldaturik egotea.

Pertsona horiek banakako edo familiako abonamendua aukera dezakete. Banakako abonamendua pertsona fisiko orori dagokion eta familiako abonamendua, berriz, bizikidetzagune familiar bat osatzen duten pertsona guztiei dagokie.

Pertsona abonatuak kirol-txartela lortzeko eskubidea dute. Kirol-txartelak erabiltzailea abonatua dela egiaztatzen duen euskarria da, eta pertsonala eta besterenezina da. Hura galduz edo hondatuz gero, beste txartel bat ordaindu behar da.

Kirol-txartela duten pertsona abonatuak zenbait abantaila izango dituzte instalazioak erreserbatu nahi badituzte. Alde batetik, abantaila ekonomikoak izango dituzte, eta beste batetik, erreserba egiteko denbora gehiago izango dute. Gainera, prezio bereziak izango dituzte kirol-ikastaroetan izena emateko (prezio horiek urte naturalerako zehaztuko dira), bai eta, izena emateko, egun gehiago ere.

Abonamendu-mota bakoitzaren eta haren abantailen ezauzgarri partikularrak urtero zehaztuko dira Ordenantza Fisikalean.

Abonamendu-mota ezin izango da aldatu, indarrean dagoen bitartean.

Urteko edozein unetan egin daiteke abonamendua.

Pertsona abonatu batek abonamendu-modalitatea aldatzea eragiten duen adin bat betetzen badu, baja emango zaio automatikoki. Ondoren, abonamendu berria alta hartzeko beharrezkoak diren agiriak ekarri behar dira.

- Erabiltzaile abonatuaren izen-emateak

Alta hartu nahi duten erabiltzaile abonatu guztiek zuzen eta ondo bete behar dute izena emateko inprimakia. Kirol-instalazioetan eta Ermuko UKEren bulegoetan eska dezakete, edo web-orritik behera kargatu, eta Ermuko UKEren bulegoetan aurkeztu, eskatzen diren dokumentu guztiekin

batera. Adinez txikien kasuan, aitak, amak edo tutoreak sinatuko du izena emateko inprimakia.

Abonamendu-modalitate guztiak Ermuko UKEren bankukontuan aldez aurretik transferentzia edo banku-sarrera eginez ordainduko dira, eta bestela banku-txartelarekin lehen kuota edo zatia eta ondorengoak ordainagiriak bankuan helbideratuz.

Eskaera formalizatzean adierazten duten pertsona abonatuak kopuru berdineko bi zatitan ordaindu ahal izango dute familiako zein banakako urteko abonamenduen zenbatekoa, lehen zatia urtarrilean eta bigarrena martxoan kobratuko direlarik. Gainerako kasuetan ordainagiriak urtarrilean helbideratuko dira urtero-urtero.

Abonamenduen zenbatekoak ezin izango dira txikitu Ordenantzaren dagozkien epigrafeetan adierazitako kopuruak baino gehiago. Behin abonamendu bati alta emanda, uko egiteak ez du dirua berreskuratzeako eskubiderik ematen, ez eta bigarren zatia ordaintzetik salbuesten.

Erabiltzaile abonatuaren izaera mugagabea da, erabiltzaileak besterik adierazi ezean. Pertsona abonatuak abonamendu-modalitatea aldatzen ez badu, abonamendua beste urtebezez berritza onartzen duela ulertuko da.

Ermuko UKEk, eskumeneko organoaren bidez, beretzat gordetzen du pertsona abonatuaren kopurua mugatzeko eskubidea.

- Erabiltzaile abonatuaren izaera galtzea

Baja hartu nahi duten erabiltzaile abonatu guztiak zuzen eta ondo bete beharko dute izena emateko inprimakia. Kirol-instalazioetan eta Ermuko UKEren bulegoetan eska dezakete, edo web-orritik behera kargatu, eta Ermuko UKEren bulegoetan kirol-txartelarekin batera aurkeztu urteko abenduaren 24a baino lehen. Adin txikikoen kasuan, aitak, amak edo tutoreak sinatuko du inprimakia.

Bajak jakinarazpena egiten den urtearen hurrengo urteko urtarrilaren 1ean izango du ondorio.

Borondatez zein ez, baja hartzen duten erabiltzaile abonatu guztiak kirol-txartela itzultzeko betebeharra dute.

Urteko kuota helbideratzearen bidez ordaindu ondoren baja hartu nahi duten erabiltzaile abonatuak kuota itzuliko zaie. Alabaina, bi baldintza hauek bete behar dituzte: ekitaldiko lehen hilabetea amaitu baino lehen eskatzea eta ekitaldi horretan kirol-txartela erabili ez dutela frogatzea. Epe hori igarotzen bada, ez zaie diru-kopururik itzuliko.

6. artikulua.— Abonatu gabeko erabiltzaileak

Abonamendurik ordaindu ez eta kirol-ekipamenduak erabiltzen dituen pertsona fisiko oro izango da abonatu gabeko erabiltzailea.

Abonatu gabeko erabiltzaileek eskubidea dute Ordenantzan zehazten diren erabilera libreko guneak erabiltzeko, erreserbak egiteko, eta ikastaro eta kirol-kanpainetan izena emateko.

Ermuko UKEk, eskumeneko organoaren bidez, kirol-zentroetara noizean behin sartzeko tasa zehaztuko du. Tasa hori ordainduta, abonatu gabeko erabiltzaileak kirol-instalazioetan sartu ahal izango dira. Erabiltzaile horiek ere men egin beharko diete araudi honetan eta Ordenantzan ezarritako arau eta baldintzei.

Tasa hori ordainduz gero, egun horretan behin sartu ahal izango dira. Hortaz, behin instalaziotik irtenda, beste sarrera bat ordaindu beharko da, atzera ere sartzeko.

Abonatu gabeko erabiltzaileek sarrera-txartelak erosteko aukera dute. Txartel hori ez da pertsonala, eta besterengarria da.

Instalazioetara sartzeko, abonatu gabeko erabiltzaileek instalazio-erreserbari dagokion sarrera beharko dute, eta kirol-ikastaroen kasuan, kirol-txartela.

Sarrera erosteak instalazioak egun horretan bertan erreserbatzeko eskubidea ematen du. Erreserba eginez gero, horri dagokion tasa ordaindu beharko da.

Abonatu gabeko pertsona bat kirol-ikastaro batean matrikulatzen bada, instalazioetara sartzeko txartel bat emango

zaio. Hala ere, sartzeko eskubidea, ikastaroa ematen den denboran ikastaroari lotutako aretoetara mugatuta izango du.

Abonatu gabeko pertsonak higie-, osasun- eta estetika-zerbitzuak erreserba ditzakete (sauna, lurrun-bainua eta UVA izpien kabina bertikala). Zerbitzu horiek noizean behin edo hainbat saioko txartelak erosiz (baina edozein kasutan ere pertsonalak eta besterenezinak) eskura daitezke.

7. artikulua.— Erabiltzaile ikastarogileak

Hauek dira erabiltzaile ikastarogileak: instalazioetan ematen diren kiroletako ikastaroren batean izena eman duten pertsonak. Abonatuak zein abonatu gabeak izan daitezke.

- Ikastaro, jarduera eta kirol-kanpainetan izena ematea

Urte natural bakoitzeko ekainean, Ermuko UKEk hurrengo denboraldian eskainiko diren kirol-ikastaroen katalogoa emango du jakitera.

Ermuko UKEk egingo du kirol-ikastaroen programazioa. Ikastaro horietan, jarduera fisikoa egingo da, kirol-modalitate bat oinarri hartuta ala ez. Programazio ebolutiboa izango da eta gehienezko iraupena ezarri ahal izango zaio, eskariaren arabera.

Klaseen kalitatea zaintze aldera, ikastaro guztiek ikasle-kopuru mugatua izango dute, jardueraren eta aretoaren

ezaugarrien arabera.

Kirol-ikastaro bakoitzari dagokionez, hau zehaztuko da:

- Iraupena
- Ordutegia
- Ikastaroaren oinarrizko deskribapena
- Adinak
- Parte-hartzaileen gehieneko eta gutxieneko kopurua
- Kuota
- Sartzeko baldintzak
- Izena emateko lekua

Kirol-denboraldi bakoitzean, Ermuko UKEk jakitera emango du zein izango diren ikastaro edo denboraldi baterako datak, izena emateko arauak eta izena emateko epe zehatzak.

Kirol-ikastaroren batean izena eman nahi duten pertsona guztiak izena emateko inprimakia bete beharko dute. Kirol-instalazioetan eta Ermuko UKEn bulegoetan eska dezakete, edo web-orritik behera kargatu, eta Ermuko UKEn aurkeztu, eskatzen diren dokumentu guztiekin batera. Adinez txikikoen kasuan, aitak, amak edo tutoreak sinatuko du izena emateko inprimakia.

Pertsona bakoitzak bere familia-unitateko kideen izen-emateak egin ahal izango ditu, gehienez ere.

Erabiltzaileak adingabeak direnean, aitak, amak edo tutoreak

ordaindu beharko ditu prezioak.

Izena eman beharreko pertsonak eskatzen zaizkion baldintza guztiak bete beharko ditu izena eman aurretik.

Ikastaroetako lehen kuota eskudirutan ordainduko da, edo banku-txartelaren bidez, edo dirua Ermuko UKEn kontu korrontean sartuz edo transferentzia eginez. Berritze guztiak automatikoak izango dira eta hurrengo kuotak aldeztu aurretik ordainduko dira, kontratatzen den ikastaroaren iraupenaren arabera –hilabetea, bihilekoak edo hiruhilekoak–, helbideratzearen bitartez.

Hilabete bakoitzeko lehen astean, kontratatutako ikastaroaren aldiari dagokion helbideratzea egingo da.

Kanpaina eta ikastaro monografikoak horiek hasi aurretik ordainduko dira ordainketa bakarrean eskudirutan edo banku-txartelaren bidez edo Ermuko UKEn kontu korrontean sarrera edo transferentzia eginez.

Izen-emateak eta berritzeak arau hauen mendean daude:

- Erabiltzaile abonatuaren izen-emateak hilabete bakoitzeko 23tik aurrera egingo dira.
- Abonatu gabeko erabiltzaileen izen-emateak hilabete bakoitzeko 26tik aurrera egingo dira.

Ermuko UKEk baliogabetzat hartutako egunengatik, grebengatik edo kausa naturalengatik, ez da murriztapen ekonomi-

korik egingo ikastaro, kanpaina edo jardueren kostuan.

Ezin izango da ordu- edo hilabete-aldaketarik egin, ez kausa medikoengatik, ez oporrenengatik edo beste edozein kausarengatik. Betebehar horretatik salbu geratzen dira errelebotan lan egiten duten pertsonak, hori egia dela frogatzen badute. Kasu horretan, kontratatutako ikastaroaren ordua lanaldiaren arabera aldatu ahal izango dute, ikastaro horren baldintza berberak mantenduta zein ordutan etorriko diren zehaztuz.

Kuoten zenbatekoa proportzionalki zatituko da, hilabetea bainoaldi txikiagoetan ordaintzen badira, hilero ordaindu behar badira eta ohiko jardueretarako badagozkie. Hileko banaketa proportzionala zehazteko, kontuan hartuko da dagokion jardueraren zenbat saio egiten diren hilean.

Kirol-ikastaro edo jarduera batean izena eman ondoren, ez da dirua itzuliko. Hala ere, zenbait salbuespen daude, dagokion organoak nahitaezko txosten teknikoak aztertu eta gero baimena ematen badu, eta kasu horretan, erabiltzaileak ez du kalte-ordaina jasotzeko eskubiderik izango. Hauek dira salbuespenak:

- a) Ikastaroko saio guztietara joatea galarazten duen lesioa, istripua, gaixotasuna edo egoera pertsonal larria, dokumentu bidez justifikatua, eta jarduera egiten hasi baino lehen jakinarazia. Kasu horretan, erabiltzaileak baja eta, dagokionean, tasa itzul diezaiotela eskatu beharko du, Ermutiko UKEren presidenteordeari zuzenduko dion idaz-

tzaren bitartez, egoera egiaztatzen duten dokumentu guztiak erantsiz.

- b) Instalazioetan obrak egiten badira eta obra horiek instalazioak behar bezala erabiltzea eragozten badute.
- c) Ikastaroa edo jarduera ematen ez bada, eteten bada edo bertan behera uzten bada.
- d) Ikastaro edo jarduera bat ezinbestean eteten bada, haren zenbatekoaren zati proportzionala itzuliko da.
- e) Erabiltzaileari leporatu ezin zaizkion kausengatik jarduera beste instalazio batera lekualdatzen bada edo zerbitzuaren baldintzak aldatzen badira, eta horrek erabiltzaileak jarduera egitea galarazten badu.

Behin ikastaroa hasita, ez da ordaindutako zenbatekoa itzuliko, ez eta erabiltzaileak klasera joaterik ez badu ere. Salbuzpenezko kasuren baten, bihileko edo hiruhileko ikastaro edo jarduerak direnean, klasera joan gabeko hilabete osoen prezioa berreskura daiteke, joandako hilabete osoen edo zatien prezioa kobratuta, honako atalean adierazten diren salbuzpenezko kasuak gertatzen direnean beti ere.

Irakasleak ez badira azaltzen, ekipamenduek funtzionatzen ez badute, eta abar, lehenengo eta behin, ez da klaseen zenbatekoa itzuliko; izan ere, ahal izanez gero, klasea beste une batean emango da.

Ikastaro bat egiteko gutxieneko erabiltzaile-kopurua ez badago, bertan behera geratuko da, eta izena emandako pertsonen zentzuzko itzuliko zaie ahal bezain laster.

Kirol-ikastaroko irakaslea aldatu beharra badago, ez da kuota itzuliko.

Ermuko UKEk bere gain gordetzen du ikastaro batean izena emandako pertsona bati baja emateko eskubidea, ikastaro horretara behin eta berriro eta justifikaziorik gabe azaltzen ez bada.

- Ikastaro, jarduera eta kirol-kanpainetan baja ematea

Bajak idatziz jakinarazi behar dira UKEren bulegoetan. Horretarako, kirol instalazioetan, Ermuko UKEren bulegoetan edo web-etik behera kargatuz eskuratu daitezkeen inprimakiak erabili behar dira. Hileko ikastaroen kasuan, hilabeteko 22ra arteko epea egongo da inprimakia emateko. Hilabetea baino iraupen luzeagoko ikastaroen kasuan, ordaindutako aldia amaitu eta zazpi egun natural lehenago aurkeztu behar da baja emateko inprimakia. Epe horiek bukatu ostean, izen-ematea automatikoki berritu eta, hilabetearen hasieran, hurrengo kuotari dagokion ordainketa helbideratuko da.

Adingabeen baja soilik onartuko da, aitak, amak edo tutoreak egiten badu.

- Ikastaroen itxarote-zerrenden kudeaketa

Ermuko UKEk itxarote-zerrendak kudeatzeko prozedura bat ezarriko du, programaturako ikastaro eta/edo jardueretan bete gabeko plazak estaltze aldera.

Ikastaro batean plaza hutsen bat badago, pertsona interesdunak deituko zaie. Pertsona interesatuei zer ordenatan deitu zehazteko, kontuan izango da itxarote-zerrendetan zer datatan eman zuten izena

Itxarote-zerrendetan izena emanda duten pertsonen plaza huts bat dagoela jakinarazteko, haiek emandako telefono-zenbakira deituko zaie. Ermuko UKE hiru aldiz saiaturiko da jakinarazten 24 orduko epean, lanegunen barruan. Pertsona interesdunak, bere aldetik, 3 ordu izango ditu, gehienez ere, plaza onartzeko edo hari uko egiteko.

Pertsona batek plazari uko egiten badiu, Ermuko UKEk itxarote-zerrendatik kendu eta berriz egingo du prozedura, itxarote-zerrendako hurrengoari jakinarazteko.

Ermuko UKEk denboraldian zehar ikastaro-eskaintza zabaltea erabakitzen badu, modalitate bereko –edo, egonez gero, maila bereko– itxarote-zerrendan izena emanda dauden pertsonen emango die lehentasuna.

Itxarote-zerrendek irailetik ekainera bitarteko iraunaldia izango dute; alegia, denboraldiko ikastaroek irauten dutena.

Itxarote-zerrendetan izena emanda dauden pertsonen zerrenda horien eguneratzeak izango dituzte eskura, bai eta

haien arauak ere. Ermuko UKEren bulegoetan izango dituzte.

8 artikulua.- Erabiltzaile, abonatu gabeko erabiltzaile eta ikastarogileentzako arauak

Ordainagiriak edozein kausarengatik -UKEren hutsegiteagatik izan ezik- ez ordaintzeak edo itzultzeak abonamenduaren edo, dagokionean, ikastaroaren baja eta kirol instalazioak erabiltzeko eskubidea galtzea eragingo du automatikoki, aurrez inolako jakinarazpenik egin gabe. Erabiltzaile abonatuaren edo, dagokionean, ikastarogilearen izaera berreskuratzeako, ordaindu gabeko ordainagiriak ordaindu beharko dira, bai eta txartela berraktibatzeako tasa ere. Bestela, ezin izango du pertsona abonatu eta/edo ikastarogilearen izaera berreskuratu, harik eta ordaintzeari utzi eta 12 hilabete igaro arte. Itzulitako ordainagiriak ez dira berriro banku bidez igorriko; harrera-mahaietan ordaindu behar dira, banku-txartelaren bidez edo eskudirutan.

Kirol-txartela egin edo berritu nahi duten erabiltzaileek M.A. Blanco Udal Kiroldegiko Bezeroaren Arretarako Bulegora joan behar dira. Txartela eskuratzeko baldintza izango dira Ermuko UKEren ordaintetako egunean edukitzea, txartelaren kopia bat ateratzeko eskabidea betetzea eta pertsona eskatzailearen koloretako argazki bat entregatzea, argazkiaren atzealdean datu pertsonalak jasoz (izena eta erabiltzaile bakoitzaren zenbakia).

Kirol-txartelaren kopia bat igortzeak aurreko txartela balio-gabetzen du; hau da, txartel horren kopia baliodun bat soilik

egongo da. Abonamenduaren edo, dagokionean, ikastaroaren titularrak edo hark baimendutako pertsonak (pertsona titularrak idatzi eta sinatu behar du baimena, eta bere NA-Naren fotokopia eman) soilik eska dezakete kirol-txartelaren kopia bat. Eskaera UKEren bulegoetan egin behar da.

Kirol txartel berria egingo da lehengo galdu, lapurtu, hondatu edo gaizki funtzionatzea duenean, edo Ermuko UKEK inoiz edozein arrazoirengatik txartel guztiak eguneratzea erabakitzen duenean.

Txartela galduz edo norbaitek lapurtuz gero, pertsona titularrak berehala jakinarazi beharko dio Ermuko UKEri, erakundeak horren berri jakin dezan, eta txartela egin edo berritzeagatik ordenantzan ezarritako tasa ordaindu beharko du.

Kirol txartela hondatu ezker edo gaizki badabil, eta horren errua titularrak badauka, txartela egin edo berritzeagatik ordenantzan ezarritako zenbatekoa ordaindu beharko du; errua ez bada titularrarena doan eskuratuko du berria.

Kasu horretan erabiltzaileak kirol txartela erantsi beharko dio beti eskabideari.

UKEko langileek kirol-txartelak kentzeko ahalmena dute. Kirol-txartelaren titularrak ondo erabili beharko du une oro. Iruzurrez erabiliko balu, zehapena ezarriko lioke UKEK, Ordenantzan eta Araudi honetan aurreikusitakoaren arabera.

Bigarren titulu honetan orain arte azaldutakoarekin lotutako

izapide guztiak egitera, Ermuko UKEren bulegoetara joan beharko da lehenengo.

9. artikulua- Erabiltzaile kolektiboak

Hauek hartuko dira erabiltzaile kolektibotzat: talde homogeneo bateko kideak, haien ezaugarri komunen ondorioz jarduera fisikoa baliabide pedagogiko edo terapeutiko gisa edo aisialdirako gomendatuta dutenak.

Erabiltzaile kolektibo mota hauek bereiziko dira:

1. Lehen eta Bigarren Hezkuntzako ikastetxe publikoak eta itunduak
2. Organismo publikoak
3. Irabazi-asmorik gabeko elkarte publiko eta pribatuak
4. Enpresak

Legez eraturako kolektibo orok instalazioak erabiltzeko eska diezaioke Ermuko UKEri, baldin eta aurreko atalean aipaturako baldintzaren bat betetzen badu. Kasu horretan, UKEK instalazioak lagako dizkio, betiere, libre badaude eta aldi bakoitzerako onartutako prezioetan.

Erabiltzaile kolektiboek ezin izango dute irabazi-asmoa duten jarduerarik egin, kirol-lehiaketak eta kirolekoak ez diren erabileren ataleko jarduerak izan ezik. Gainera, UKEri kontratu bidez dagozkion jarduerak ere ezin izango dituzte egin, hala nola ikastaroak eta kirol-jarduerak.

Erakunde eta elkarteekin sinatutako hitzarmenen arabera, pertsona erabiltzaile mota zehatzak ezar daitezke, eta instalazio jakin batzuk erabil ditzaten. Erabiltzaile horiek txartel berezia izango dute, eskumeneko organoak urtean-urtean onartutako tasa ordaindu ostean. Borondatez edo behartuta baja hartuz gero, txartel hori itzultzeko betebeharra izango dute.

Edonola ere, taldeko kideen arteko harreman nagusia ez da inola ere izango Ermuko UKEK lagatako gunearen erabilera.

Jarduerak egin bitartean erabiltzaileek instalazioak hondatu edo haietan kalterik egingo balute, instalazioaren lagapena duen erakundea izango da arduraduna Ermuko UKEren aurrean, ondorio guztietarako.

Erabiltzaile kolektiboek arduratu beharko dute osasun-botikina izateaz, behar izanez gero erabili ahal izateko; hau da, hori ez da Ermuko UKEren ardura izango.

- Lehen eta Bigarren Hezkuntzako ikastetxe publikoak eta itunduak

Ikastetxeek eskola-orduetan erabil ditzakete Ermuko UKEren instalazioak, eskolako gorputz-hezkuntzako klaseak egiteko; alegia, lanegunetako 8:30etik 16:30era. Aire zabaleko instalazioak erabil ditzakete, bai eta kirol anitzeko aretoak eta klimatizatutako igerilekuak ere. Edozein kasutan, jendaurreko ordutegia errespetatu beharko dute.

Ikasturte bakoitza amaitzean, eta hurrengo ikasturtea programatzen laguntze aldera, instalazioak ikastetxeei ikasturte berrian lagatzeko irizpide eta baldintzak ezarriko dira. Dagozkion eskaerak jaso eta gero, irizpide horien arabera banatuko dira instalazioak, ikastetxeek eskolako gorpuztezkuntza eman dezaten haietan, eskola-orduetan.

Behin instalazioaren erabilera esleituta, ikastetxeko ikasleak eta irakaslea hartan sartu ahal izango dira, Ermuko UKEk zehaztutako erabilera-baldintzetan ezarri den programazioko ordutegian.

Edonola ere, ikastetxeetako erabiltzaileek beren irakasleekin joan beharko dute Ermuko UKEn instalazioetara. Une oro, irakasleak taldearen arduradunak izango dira Ermuko UKEn aurrean. Klasea ematen ez duenean ere, ardura hori izango du. Ikasleekin batera doazen irakasleek beharrezko prestakuntza izango dute, indarreko legeetan adierazitakoaren arabera. Instalazioen erabilera eskatzen duen erakundea arduratuko da lege horiek betetzen direla eta jarduera behar bezala garatzen dela.

Artículo 10.- Lehiaketa ofizialetan izena emandako kirolari federatuak eta eskola-kirolariak

Lehiaketa ofizialetan izena emandako kirolari federatu eta eskola-kirolari hauek bereiziko dira:

1. Ikasleen guraso-elkarteek sortutako eskolako kirol-

taldeetako kirolariak.

2. Klub eta kirol-elkarteetako kirolariak.

Ermuko UKEk bere kirol-guneak erreserbatuko dizkie ikasleentzako guraso-elkarteek sortutako eskolako kirol-taldeei zein klub eta kirol-elkarteei, programazio bati jarraituz. Erreserba horiek kirol-denboraldi bat iraungo dute.

Ermuko UKEk egingo ditu erreserba programatu horiek, arlo tekniko eta kirolekoak koordinatuta.

Kirolariak pertsona abonatuaren kirol-txartela beharko dute, instalazioetan sartzeko eta erreserba programatuaren entrenamenduetan parte hartzeko.

Partidu edo entrenamenduetan erabiltzaileek instalazioak hondatu edo haietan kalterik egingo balute, instalazioaren lagapena duen erakundea izango da arduraduna Ermuko UKEn aurrean, ondorio guztietarako.

Lehiaketa ofizialetan izena emandako kirolari federatuak edo eskola-kirolariak osasun-botikina izateaz arduratu beharko dute; hau da, hori ez da Ermuko UKEn ardura izango.

II. KAPITULUA. ERABILTZAILAEN ESKUBIDE ETA BETEBEHARRAK

11. artikulua.— Erabiltzaileen eskubideak

Kirol-instalazioen erabilerari dagokionez, pertsona erabiltzaileek, abonatuak zein abonatu gabeek, eskubide hauek dituzte:

- Instalazioak erabiltzeko, jendearentzako ordutegian.
- Instalazioei, ordutegiei, tasei, kirol-jarduerei eta sartzeko moduari buruzko informazioa jasotzeko, berdintasunez, zuzenean eta norberaren neurrira, ahalik errespaturik eta begirunerik handienarekin.
- Datu pertsonalen konfidentialtasuna eta pribatasuna bermatuak izateko.
- Euskal Autonomia Erkidegoko edozein hizkuntza ofizialtara artatua izateko.
- Alokaturako edo erreserbatutako kirol-instalazioak erabiltzeko, edo izena emandako jarduerak egiteko, erreserbatutako ordutegi eta aldietan, baldin eta aldezturitik programaturako jarduerak eragozten ez badute, Ermuko UKEk baimendutako kirol-ikuskizunen bat egiten ez bada, edo konpondu ezin den matxuraren bat gertatzen ez bada.
- Instalazioak higiene-, garbitasun- eta segurtasun-maila onarekin erabiltzeko, erreserbatutako kirol-jarduera zuzen gara dadin.
- Igerilekuetako uraren kalitateari buruzko neurketen datuen berri izateko (pH-a, kloro-maila, uraren tenperatura eta giro-tenperatura). Datu horiek jendaurrean jarri behar dira.
- Erreklamazioak edo hobekuntza-iradokizunak idatziz adierazteko, askatasun osoz, eta gehienez ere, zazpi egun naturaleko epean erantzuna jasotzeko.

- Araudi honen kopia bat eskatzeko.
- Indarreko legedian eta Araudi honetan onartzen zaizkien beste eskubide guztiak.

12. artikulua.— Erabiltzaileen betebeharrak

Erabiltzaileek –abonatuak zein noizean behingoez– betebeharrak hauek bete behar dituzte:

- Instalazioak erabil ditzaketela egiaztatzen duen dokumentua gainean eramateko (txartela, sarrera, baimena, etab.), eta Ermuko UKEko langileei erakusteko, eskatzen badiete, eta egoeran onean izateko. Ermuko UKEk usta badu pertsona abonatu edo behin-behineko erabiltzaile batek izaera hori galdu duela, edo kirol-txartela edo sarrera aurkeztean arazoren bat badago, sartzen utziko diote une horretan. Hala ere, txartela kenduko zaio, harik eta berriz sartzea eragozten duen kausa konpondu arte.
- Instalazioaren funtzionamendu-ordutegiak errespetatzeko, eta une oro, Ermuko UKEko langileen oharrak aintzat hartzeko eta errespetatzeko.
- Instalazio, zerbitzu eta ekipamenduak behar bezala erabiltzeko eta zuzen zaintzeko, kirol-unitate bakoitzaren arauak errespetatzeko, Ermuko UKEko langileen oharrak aintzat hartuz eta errespetatuz, eta instalazioen egoera onari eusten eta kirol-jarduerak behar bezala garatzen laguntzeko.
- Instalazioetako langileei funtzionamendu-arazo, hutsura eta hutsuneen berri emateko, edo Araudi honetan

ezarritakoa urratu dela jakinarazteko. Norberak sortutako kalteen berri ez ematea hutsegite larritzat hartuko da.

- Une oro jarrera zuzena izateko eta gainerako erabiltzaileak errespetatzeko.
- Gainerako erabiltzaileen lehentasunezko eskubideak errespetatzeko, batik bat alde aurretik esleitutako ordutegi-erreserbari dagokionez.
- Instalazio, ikastaro eta abarrerako ezarritako kuota eta tarifak behar den garaian ordaintzea.
- Ermuko UKEk eskumeneko organoaren edo instalazioetako langileen bidez ematen dituen arau eta agindu guztiak obeditu eta betetzeko, eta edonola ere, langileen lana errazteko. Derrigorrez errespetatu beharko dituzte langileak, eta haien esana arretaz hartu.
- Kirol-instalazioak behar denerako soilik erabiltzeko eta, kasu bakoitzean, kirol-material egokia erabiltzea, betiere, Ermuko UKEk bestelako baimena ematen ez badu.
- Ermuko UKEk hau gomendatzen die erabiltzaile guztiei: edozein jarduera fisiko egiten hasi aurretik, azterketa medikoa egitea. UKEk beretzat gordetzen du azterketa hori eskatzeko eskubidea, beharrezkotzat joko balu. Be-zeriki gomendagarria da denbora luzean ezer ere egin gabe egon diren pertsonentzat edo gaixotasun kronikoren bat dutenentzat.

III. KAPITULUA. DATU-BABESA

13. artikulua. — Datuak babesteko politika

Izaera pertsonaleko datuak babesteko 15/99 Lege Organikoaren, azaroaren 13koaren, ondorioz, instalazioetan izena ematean, pertsona erabiltzaileek beren datu pertsonalak erabiltzeko baimena ematen dute, haien tratamendu informatikoa egiteko (instalazioak kudeatze aldera) eta, dagokionean, informazio interesgarria bidaltzeko.

Datu horiek Ermuko UKEren fitxategi informatizatu batean sartuko dira. Pertsona interesdunek datu pertsonalak erabiltzeko, zuzentzeko, baliogabetzeko eta haien aurka egiteko eskubidea dute. Horretarako, idatziz jakinarazi behar diote Ermuko UKEri, edo zuzenean Zuzendari Gerenteari.

IV. KAPITULUA. ASEGURUAK

14. artikulua. — Erantzukizun zibileko aseguruak

Ermuko UKEk erantzukizun zibileko aseguru bat du kudeatzen dituen kirol-zentro guztietarako, instalazioen beraien hutsuneren batek istripurik eragiten badu.

V. KAPITULUA. IRADOKIZUN-ORRIAK ETA GALDUTAKO GAUZAK

15. artikulua. — Iradokizun-orriak

Ermuko UKEren instalazioak erabiltzen dituzten pertsonen eskubideak bermatze aldera, iradokizun-orriak izango dituzte eskura, kirol-zentro bakoitzeko harrera-mahaian. Erabiltzaile guztiek erabil ditzakete orri horiek. Instalazioetako zerbi-

tzuek behar bezala funtzionatzen ez dutela ikusiko balute, jakinarazi beharko lukete. Abonatu-zenbakia edo NAN zenbakia adierazi beharko dute, bai eta izena, bi abizen, helbidea eta telefono-zenbakia ere. Iradokizuna edo erreklamazioa egiten duen pertsonak kopia bat hartuko du beretzat, eta erantzuna jasoko du. Erantzuna idatziz edo telefono bidez jasoko du.

Erabiltzaileek edozein momentutan eska diezaiekete instalazioetako langileei edo zerbitzuetako arduradunei nor diren esan dezaten, erreklamazioak egiteko.

16. artikulua.— Galdutako gauzak

Eguna amaitzean kirol-instalazioetan jasotzen ez diren edo armairu eta aldageletan ahazten diren objektu edo jantziak horretarako bereziki jarritako edukiontzietan utziko dira. Ermuko UKEk beretzat gordetzen du objektu eta jantzi horiek botatzeko eskubidea.

HIRUGARREN TITULUA

ERRESERBA ERREGIMENA ETA INSTALAZIOEN ERABILERA

VI. KAPITULUA. ERRESERBAK ETA INSTALAZIOEN ALOKAIRUA

17. artikulua.— Erreserbatzeko arau orokorrak

Erreserba deritzo erabiltzaile bati edo erabiltzaile-talde bati instalazio edo ekipamendu jakin bat erabiltzeko eskubidea

ematen dien tituluari. Erreserbatutako denboran, beste erabiltzaileek ezin dute instalazio edo ekipamendu hori erabili.

Instalazio eta ordu jakin batzuetarako egingo dira erreserbak. Hala ere, Ermuko UKEk bertan behera utz dezake, interese orokorreko kausarik badago.

Erreserba egiteko epea hasi ondoren, erreserba eskatzen duen lehen pertsonak izango du hura formalizatzeko eskubidea. Harrera-mahaietan eta Ermuko UKEk horretarako ezartzen dituen sistemen bidez egin daiteke erreserba.

Erreserba programatuak egiteko, Araudi honetako 9. eta 10. artikuluetan adierazitakoa aplikatuko da.

Tasa ordaintzeak instalazioa erabiltzeko eskubidea emango du, tarifetan zehaztutako denboran. Erreserbatutako denbora amaitutakoan, instalazioan jarraitzea egongo da, baldin eta hurrengo denbora-aldian libre badago eta dagokion tarifa ordaintzen bada.

Erreserba bat gauzatzeko, pertsona interesdunak azaldu eta dagokion tasa ordaindu beharko du. Edonola ere, erreserbatutako instalazioa erabiltzen hasi baino lehen ordaindu behar da tasa.

Doako instalazioak 24 orduko aurrerapenez erreserba daitezke gehienez ere, eta pertsona bakoitzak erreserba bat egin dezake egunean.

Erreserba guztietan, instalazioa alokatzen duen pertsonaren izena eta telefonoa hartuko dira.

18. artikulua.— Erreserbak itzultzea eta aldatzea

Edozein instalazio erreserbatu ondoren, tasaren zenbatekoa itzuli edo eguna edo ordua aldatu ahal izango da, txosten teknikoa aztertuta eta Ermuko UKEren egoeraren arabera. Edozein kasutan, erabiltzaileak ez du inolako kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik izango. Gainera, kasu hauetako bat eman beharko da:

- a) UKEk lehentasunezkoztat hartzen duen jarduera bat programatzen badu eta jarduera horrek, erabiltzaileari ez dagozkion kausengatik, erreserbatutako instalazioa erabiltzea edo jarduera egitea eragozten badu.
- b) Erreserbaren titularrak lesioa, istripua edo gaixotasuna badu eta, hori dela eta, instalazioa ezin badu erabili. Kausa hori dokumentu bidez justifikatu beharko da, eta modu frogagarrian.
- c) Instalazioetan obrak egiten badira eta obra horiek instalazioak behar bezala erabiltzea eragozten badute.
- d) Instalazioen egoera dela eta, ezin badira behar bezala erabili. Aire zabaleko jardueretan, ez da tasaren zenbatekoa itzuliko eguraldi txarra egiten badu, meteorologia-alertaren egoeretan izan ezik.

Tasa itzultzea idatziz egin behar du pertsona interesdunak, Ermuko UKEren bulegoetan. Idazki bat zuzendu behar dio Ermuko UKEko presidenteordeari. Idazki horretan, berenberegiz adierazi beharko du zer kausarengatik eskatzen duen itzultzea.

Erreserba aurreikusitako erabilera baino 48 ordu lehenago bertan behera utziz gero, ezin izango dira aurreago aipatutako itzultzeak edo aldaketak eskatuko, baldin eta kausak ezin bazaizkio Ermuko UKEri leporatu.

Erreserbaren titularrak hura erabiltzeko betebeharra du (lesio, gaixotasun eta ezinbesteko kausaren kasuan, Ermuko UKEri jakinarazi beharko dio). Hori egin ezean, Ermuko UKEk txosten bat egingo du. Txosten hori erabiltzailearen historia-leko oharren atalean jasota geratuko da, eta halakorik berriz gertatuko balu, hartu beharreko neurriak aztertuko lirateke.

19. artikulua.— Erabilera libreko guneak

Kirol-zentroek, bakoitzaren ezaugarrien arabera, erreserba egitea behar ez duten kirol-guneak izan ditzakete. Urtean indarrean dagoen Ordenantzan, erabilera libreko guneak azalduko dira.

Erabilera libreko guneetan sartzeko, baldintza hauek behar dira: erabiltzaile abonatuia izatea edo kirol-zentroan sartzeko sarrera izatea, eta aplikatzeakoak diren erabilera-arauak errespetatzea.

Dena den, eta gomendagarria bada, erabilera libreko guneak erreserba programatuak egiteko erabil daitezke. Erreserba horiek ohiz kanpokoak izango dira.

20. artikulua.— Erabiltzaile abonatuak erreserba eta alokairuak

Erabiltzaile abonatuak sarbide libreko zenbait instalazio erabil ditzakete, erreserba egin ostean, eta erreserbatu behar diren beste batzuk, dagokion tasa ordainduta.

Tasa ordaintzea behar duten instalazioen kasuan, erabiltzaile kolektiboan eta Lehiaketa ofizialetan izena emandako kirolari federatuak edo eskola-kirolarien erreserbei erantzun ondoren, erabiltzaile abonatuak ondorengo erreserba-motak egin ahal izango dituzte:

a) Hileko erreserba finkoak, astean ordubeteak: erreserba horrela egiteko bide ematen duten instalazioetan, zozketa egingo da hori eskatu duten erabiltzaile abonatuak artean. Asteen ordubete bakarrik alokatu ahal izango da eta aurrez ordaindu beharko da, hilaren hasieran, ordainagiria bankuan helbideratuta. Erreserba horiek urtebeteko balioa izango dute gehienez, urtarilaren 1etik aurrera hasita.

Zozketa abenduan egingo da, jaiegun ez den azken ostegunean, 13:00etan M.A. Blanco Udal Kiroldegiko Bezeroaren Arretarako Bulegoan.

Zozketatu diren orduak esleitu ondoren, erreserba zehatzak egingo dira.

b) Erreserba zehatzak: gehienez zazpi eguneko eta ordu erdiko aurrerapenarekin egingo dira.

Erreserba zehatzen prezioa eskudirutan ordainduko da, bai eta, banku-txartel bidezko ordainketa-sistema duten instalazioetan, kreditu-txartelaren bidez ere.

Tasa ordaintzea behar ez duten instalazioen kasuan erreserba egiteko aurrerapena 24 ordukoa izango da gehienez.

Kirol-txartela erabilia, zenbait modutan egin daitezke erreserbak: kirol-instalazioetan beraietan zuzenean, telefono bidez eta Internet bidez.

Ordainagiri bat edozein kausarengatik –UKEn hutsegiteagatik izan ezik– ez ordaintzeak edo itzultzeak kirol instalazioak erabiltzeko eskubidea galtzea eragingo du automatikoki, aurrez inolako jakinarazpenik egin gabe. Erreserbaren bat ordaindu gabe duten erabiltzaileek ezin izango dute erreserbarik egin. Kirol-instalazioak erabiltzeko, ordaindu gabeko zenbatekoak ordaindu beharko dira, bai eta txartela berrakibatuzko tasa ere.

Erabiltzaile abonatu batek hutsegite hori hiru aldiz egingo balu, aurreko ataleko baldintza berberetan, udaleko kirol-instalazioetan telefono bidezko erreserbak egiteko eskubidea galduko luke abonamenduak irauten duen epean. Gai-

nera, erreserbatutako eta egin gabeko erabilerari edo jarduerari dagokion tasa ordaindu beharko du.

12 urtez gorako pertsona abonatuak soilik erreserba ditzakete instalazioak, salbuespen honekin: zenbait zerbitzu erabiltzeko, gutxieneko beste adin bat eskatzen da.

21. artikulua.— Abonatu gabeko erabiltzaileen erreserba eta alokairuak

Instalazioak kirol-instalazioetako harrera-mahaietan egin behar dira, eta zuzenean. Edozein kasutan, erreserba egiten den egunean erabili behar da instalazioa.

Gainera, abonatu gabeko erabiltzaileek kirol-instalazioetan noizbehinka sartzeko indarrean dagoen tasa ordaindu beharko dute.

Alokairuaren prezioa eskudirutan ordainduko da, bai eta, banku-txartel bidezko ordainketa-sistema duten instalazioetan, kreditu-txartelaren bidez ere.

16 urtez gorako pertsonak soilik erreserba ditzakete instalazioak.

Saunaren, lurrun-bainuaren edo UVA izpien kabina erabili nahi duten abonatu gabeko pertsonak erabiliko duten zerbitzuaren tasa soilik ordainduko dute. Ezin izango dute ordaindutakoaz bestelako zerbitzurik erabili, eta erabili ostean, instalaziotik irten beharko dute.

22. artikulua.— Erabiltzaile kolektiboen erreserba eta alokairuak

Ermuko erabiltzaile kolektibo guztiek kirol-instalazioak erabiltzea eska dezakete beren jarduerak egiteko, araudi partikularrean ezarritakoaren arabera.

23. artikulua.— Lehiaketa ofizialetan izena emandako kirolari federatuen eta eskola-kirolarien erreserba eta alokairuak

Lehiaketa ofizialetan izena emandako Ermuko kirolari federatu eta eskola-kirolari guztiek kirol-instalazioak erabiltzea eska dezakete beren jarduerak egiteko, araudi partikularrean ezarritakoaren arabera.

VII. KAPITULUA. INSTALAZIOAK ERABILTZEKO ARAU ETA BALDINTZAK

24. artikulua.— Erabilera-arau orokorrak

Erabiltzaile, talde antolatua, elkarte, kirol-klub, ikastetxe, erakunde eta pertsonak erabili ditzakete kirol-instalazioak. Muga hauek dituzte, besterik ez: legeetan eta Araudi honetan ezarritakoak, instalazio horien erabilerari dagozkion mugak eta erabili nahi den jardueraren indarreko tasa ordaintzea.

Kirol-instalazioetan sartzea eta haiek erabiltzea arautzen

duten tasak Ermuko UKEko Kontseilu Errektoreak ezarritakoaren mende egongo dira. Ermuko Udaleko Udaltzako zehaztuko du tasa horiek zenbatekoak diren.

Ermuko UKEko Administrazioak administratu eta kobratuko ditu ezarritako tasak.

Ermuko UKEk onartutako jendearentzako ordutegia jendarearen ipiniko dira, instalazio bakoitzean ondo ikusten den lekuan, erabiltzaileak informatuta egon daitezkeen.

10 urtetik beherako haurrek heldu batekin egon beharko dute instalazioetan, une oro.

Dagokion kirola egiteko eta irabazi-asmorik gabe soilik erabiltzeko instalazioak eta materialak. Bestela erabili nahi izanez gero, baimena eskatu beharko da, bai eta kasuan-kasuan onartzen den prezioa ordaindu ere.

Kirol-interesagatik edo arrazoi teknikoengatik, Ermuko UKEk beretzat hartzen du instalazioak abonatu, erabiltzaileei eta, oro har, jendeari ixteko ahalmena, eta instalazioak – baita erreserbatutakoak ere – erabiltzeko eskubidea bertan behera uztekoa. Kasu horretan, nahikoa aurrerapenez jakinaraziko du.

Ermuko UKE ez da kirol-jardueraren ondorioz gerta daitezkeen istripuez arduratuko, 14. artikuluan aurreikusitako ezin izan ezik.

Kirol-jardueraren egiteko, edozein modalitatetako dela ere, material eta jantzi egokia erabiltzeko da; bai norberaren segurtasunerako, bai instalazioaren baldintzak babesteko. Horrenbestez, oinetakoak zainduko dira bereziki. Oholtzak, parketak eta kantxa edo gimnasioetako zoru bereziak ez markatzeko zolak erabili behar dira. Hori ere kontuan harturik, komeni da kalean erabiltzen diren oinetakoak ez erabiltzea, batik bat neguan. Hortaz, entrenamendu eta partiduetan, horretarako kirol-oinetakoak erabiltzeko dira.

Ezin da elastikoa erantzita egon.

Ezin da aretoetan kirol-poltsarik, motxilarik, poltsarik edo objektu pertsonalik (giltzak, telefonoak, dirua...) utzi. Nork bere gauzak armairu batean utzi behar ditu.

Talde teknikoetako kide guztiek (entrenatzaileak, ordezkarriak eta laguntzaileak) aurreko araua hartu behar dute aintzat, bai entrenamenduetan, bai partiduetan. Bestela, horretarako bereziki prestatutako altxagarriak erabili beharko dituzte.

Zabarkeriaz, jokabide bandalikoaren ondorioz, Araudia ez betetzeagatik eta/edo instalazioak behar bezala ez erabiltzeagatik kalterik eragiten bada, UKEk zehapena ezarriko du. Banakakoei zein taldeei ezar dakieke. Partidu eta lehiaketak programatzen dituzten federazioak arduradun subsidiarioak izango dira, partidu eta lehiaketa horietan parte hartzen duen talderen batek instalazioetan kalterik eragiten bada.

Instalazioetan irregulartasunez sartzen diren pertsoneri zehapena jarriko zaie: sarreraren kostuaren baliokidea den zenbatekoa. Gainera, zehapena ordaindu ostean, instalazio-etatik irten beharko dute.

Azken urtean hutsegite larriagatik edo hutsegite oso larriagatik zehapena izan duten pertsonak ezin izango dituzte instalazio eta zerbitzuak erabili. Gauza berbera gertatuko zaie beren jokabidearen ondorioz zerbitzu eta instalazioak txarto erabiltzea eragiten duten pertsoneri, instalazioetako langileek zein kirol-ikastaroetako monitoreek jokabide horren berri ematen badiote Ermuko UKEri.

Ermuko UKEk beretzat gordetzen du klubekin eta beste erakunde batzuekin futbol-zelaiak mantentzeko akordioak, hitzarmenak eta abar egiteko eskubidea.

25. artikulua.— Publizitatea kirol-instalazioetan

Kirol-instalazioetan publizitatea (behin betiko edo uanean uneko elementuak, elementu mugikorak edo estatikoak) jartzeko, publizitateari buruzko araudi orokorra eta Ermuko UKEk zehazten dituen irizpideak hartuko dira aintzat.

Ermuko UKEk publizitatea denbora-aldi jakin batean jartzeko baimena eman dezake, ekitaldi jakin bat dela eta. Edonola ere, erakunde antolatzaileak baimena eskatu behar du.

Kirol-instalazioetan publizitatea ustiatu nahi duten kirol-erakunde, federazio eta ekitaldi-antolatzaileek idatziz egin

behar diote eskaera Ermuko UKEri.

Ermuko UKEk beretzat hartzen du publizitatea jartzea eragozteko edo kentzea eskatzeko eskubidea.

26. artikulua.— Debeku orokorrak

Erabat debekatuta dago kirol-instalazioetan edari alkohol-dunak eta tabakoa saltzea, kontsumitzea eta haien publizitatea egitea.

Debekatuta dago kirol-instalazioak erabiltzea, klaseak emateko edo beste edozein azpiesplotazio-mota egiteko erabilerara eta onura partikularra lortzeko asmoarekin.

Oro har, debekatuta dago kirol-instalazioetan jatea, edari eta jakiak banatzen dituzten makinak ondoko esparruan izan ezik. Halaber, debekatuta dago haziak, pipitak eta fruitu lehorrak jatea.

Orokorrean, debekatuta dago animaliak kirol-instalazio guztietan sartzea. Arau hori aldi baterako indargabetuta gera daiteke, ezinbesteko kasuetan eta egoera jakinetan, Ermuko UKEk onartu eta gero. Debeku horretatik itsuaurreko txakur-erakundeak daude salbuetsita (baldin eta behar bezala identifikatuta badaude eta horri buruzko legeak ezarritako xedapenak betetzen badira).

Ezin da baloi, pilota, patin edo beste objektu batzuekin jolastu aldageletan, pistetara sartzeko pasilloetan, harmaila-

tan eta kirol-gunetzat hartzen ez diren leku guztietan.

Behar-beharrezkoa da kirol-instalazioetako langileen esanari jarraitzea.

Beren-beregi debekatuta dago aldageletan kristalezko elementurik edo antzekorik sartzea (botilak, flaskoak, ispiluak, edalontziak, etab.), hautsiz gero gainerako erabiltzaileek inolako lesiorik izan ez dezaten.

Debekatuta dago kirol-instalazioetako gainerako erabiltzaile eta langileak gogaitzea, bai eta haientzat iraingarriak edo kaltegarriak izan daitezkeen jarrerak izatea ere.

Bereziki debekatzen da kirol-instalazioen barruan ilea tindatzea edo moztea, bizarra kentzea, depilatzea, manikura edota pedikura egitea, eta higiene pertsonaleko antzeko ekintzak egitea.

Instalazioen barruan, ezin da eskainitako ez bestelako kirolak egitea, Ermuko UKEko zuzendaritzaren berariazko baimenik gabe.

Ezin da kirol-zoladurari kalte egin diezaioketen elementurik sartzea, kirola egiteko erabil badaiteke ere.

27. artikulua. — Armairuak eta jantzitegiak

Ermuko UKEk armairu pertsonalak jarriko ditu erabiltzaileen zati. Erabiltzaile kolektiboentzat, jantzitegiak jarriko ditu,

jantziak eta gauzak gordetzeko.

Armairuek kirol-txartelaren gordailuaren bidez edo txanpon bat erabiliz funtzionatzen dute. Armairua erabiltzen amaitzean, txartela edo txanpona itzuliko zaizkie erabiltzaileei.

Armairuak derrigorrez erabiliko dira, norberaren gauzak gordetzeko. Ondoren, erabiltzaileek giltza eraman behar dute gainean, instalazioan dauden bitartean. Ermuko UKEk ez ditu gordailu-kontratu bidez babesten armairuan utzitako gauzak edo dirua. Hau da, UKE ez da armairuan utzitako gauzak eta dirua zaintzeaz arduratuko, ez eta ahanzturaz edo utzikieriaz utzitako gauzez ere.

Erabiltzailearen batek jantzitegi edo armairu baten giltza ahaztuz gero, Ermuko UKEko langileek irekiko dute. Hala ere, horretarako, erabiltzaileak armairuaren barruko gauza pertsonalak deskribatu beharko ditu, eta ondoren, galdeketa bati erantzun eta nor den frogatuko du NANaren bidez. Halaber, Ordenantzan ezarritako zenbatekoa ordainduko du.

Erabiltzaileek unean uneko kirol-jarduera bat egiteko soilik erabiliko dituzte armairuak. Kirol-jarduera amaitutakoan, erabiltzaile bakoitzak armairuan utzitako gauzak kendu eta armairua libre utziko dute. Armairuak ezin dira egun batetik bestera erabili.

Erabiltzaile bakoitzak ezin du armairu bat baino gehiago erabili.

Entrenamendu-orduetan, partiduetan eta jarduerak talde gisa egiten dituztenean, erabiltzaile kolektiboek eta lehiaketa ofizialetan izena emandako kirolari federatuek edo eskola-kirolariek armairu kolektiboak erabili beharko dituzte.

Kirol-guneren bat erabiltzeko ordua esleituta duten ikastetxe, kirol-talde eta klubei dagokienez, Ermuko UKEk jantzi-tegi bat emango die, haietako kideen jantziak eta gauzak gordetzeko, jarduera egiten duten bitartean. Instalazioko harrerako langileek emango diete armairuaren giltza, eta kirolariek arduradunen zaintzapean egongo da une oro. Hortaz, ezinbestekoa da jarduera amaitu eta gero giltza harrerako langileei itzultzea.

Instalazio bat jendearentzat itxi eta gero armairuaren batean gauza pertsonalik balego, kendu egingo litzateke.

Debekatuta dago armairuaren edo jantzitegiaren giltza instalazioetatik kanpo ateratzea.

Ezin da degradatu edo honda daitekeen elementurik gorde armairuetan.

Kirol-talde bakoitzak bere jabetzako saski, sare edo poltsetan gordeko du kirol-zentro bakoitzean uzten duen materiala, edo horretarako prestatutako baloi-gordetzekoetan. Instalazioak ez du horren ardura hartuko.

28. artikulua.— Aldagelak

Oro har, derrigorrezkoa da erabiltzaileek egin beharreko jarduerari dagokion aldagela erabiltzea.

Bizikidetzeta dela eta, debekatuta daude jolas gogaikarriak eta arriskutsuak.

Ikasle edo bainularien senide edo laguntzaileak ezin dira aldageletan eta igerilekuko hondartza-gunean sartu, 7 urtetik beherako haurren eta/edo urritasunen bat duten pertsonen kasuan izan ezik. Izan ere, kasu horretan, pertsona heldu arduradun bat egongo da haiekin. Pertsona hori abonatua ez bada, klasea hasi eta 20 minutu lehenago sartu ahal izango da aldagelan, haurrari edo urritasuna duen pertsonari arropaz aldatzen laguntzeko.

7 urtetik beherako hurrek beste sexuko aldagela erabil dezakete garbitzeko eta janzteko, baldin eta haietzako aldagelarik ez badago, eta Ermuko UKEk horretarako ezartzen dituen arauari jarraituz. Haur horiek haien guraso-agintea, tutoretza edo guarda duen adin nagusiko pertsona batekin egon behar dute.

Higienea eta segurtasuna dela eta, debekatuta dago haur-aulkiak eta erosketetarako orgak sartzea.

Erabiltzaileak arropaz aldatzeko eta garbiketarako behar den denboran egon daitezke aldageletan; gehienez ere, 20 minutuz.

Halaber, kirol-guneak itxi ondoren, erabiltzaileek 20 minutu

izango dituzte, gehienez ere, aldagelak erabiltzeko eta instalazioetatik irteteko.

Federazio, klub, elkarte ikastetxe edo enpresek antolatutako jardueretan:

- a) Taldeko arduradun bat izendatuko dute, eta horrek, instalazioak erabili aurretik, egoera onean daudela egiaztatuko du. Ondoren, aldageletan egongo da, kolektiboa behar bezala jokatzeko dela zainduko du. Pertsona hori instalazioan sartzen lehena izango da, eta irteten azkena.
- b) Debehatuta da jaiak eta antzekoak egitea.
- c) Kirol-jardueran arituko diren pertsonak elkarrekin sartuko dira, jarduera hasi eta 15 minutuko aurrerapenez. Kirol-jarduera amaitutakoan, 20 minutu izango dituzte aldagelatik irteteko.
- d) Baimena aurkeztu eta gero, aldagela bat emango zaie, bai eta jantzitegiaren giltza bat ere, arropa eta gauzak haren barruan gorde ditzaten.

Behar izanez gero, talde batek baino gehiagok erabiliko dute aldagela berbera.

Aldagela eta dutxetan, beharrezkoa da gomazko zapatilak (txankletak) erabiltzea.

Aldagela garbi eta lehor izatea eskatzen da. Aldagela erabil-

tzen duten pertsonak hura aurkitutako egoeran uzten saiatu behar dute.

Egunero, aldageletan ahaztutako gauzak galdutako gauzentzat prestatutako lekuan utziko dira. Hala ere, UKE ez da galdutako gauzez arduratuko. Galdutako gauza bat erreklamatzeko, hilabeteko epea egongo da. Ondoren, gauza horiek bota egingo dira.

29. artikulua.— Informazio- eta harrera-zerbitzua

Kirol-zentro bakoitzean, erabiltzaileek informazio- eta harrera-zerbitzua izango dute eskura. Zerbitzu horretan, instalazioen erreserba-mota guztiak zentralizatzen dira, bai eta izen-emateak eta zerbitzu, kirol-ikastaro eta abonamenduei buruzko informazioa ere.

30. artikulua.— Botikina

M.A. Blanco Udal Kiroldegiko instalazioetan, botikin-zerbitzua dago erabiltzaileen eskura. Langile espezializatuak arduratzen dira zerbitzu horretaz. Han, larrialdiko lehen sendaketak egiten dira, eta lesioaren larritasunagatik behar izanez gero, hurbilen dagoen ospitalera edo lehen mailako arretako zentrora eramango dute erabiltzailea.

31. artikulua.— Igerileku estaliak

Instalazio horien erabilera erabiltzaileen jarduera fisikoarekin eta aisiarekin egongo da lotuta, bai eta igeri egiten ikas-

teko eta hobetzeko ikastaroekin ere.

Segurtasuna dela eta, 14 urtez beherakoak ezin izango dira igerilekuetan sartu (1960/6/13ko BOE, 141. zk.), baina bai, ordea, aita, ama, tutore edo arduradun batekin joaten bada, ikastaroetan parte egiten badute edo ikastetxe edo klubetako jardueraren bat egiten badute. Adinez txikiko pertsona baten arduraduna izateko gutxieneko adina 18 urte da.

Igerilekuetako ur-laminaren gehieneko edukiera Eusko Jaurilaritzak onartutako araudiak zehaztuta dago. Gaur egun, gehienez ere, pertsona batekoa da hiru metro koadroko. Ermuko UKEk beharrezko neurriak har ditzake edukiera horri eusteko. Halaber, erabilera-txandak ezar daitezke, erabiltzaile guztiei sartzeko aukera emate aldera.

Araudi honetako Laugarren Tituluaren artikuluetan arautzen da ikastetxeek programazioen barruan erabiltzea, eta igerilekuak erabiltzea eskatzen duten klub eta kirol-taldeek entrenamenduak eta lehiaketak egitea.

Ermuko UKE ez da arduratuko igeri egiten ez dakiten edo behar bezain zuhur jokatzeko ez diren erabiltzaileek izan ditzaketen istripuez. Horretarako, erabiltzaile batek igerileku baten hondoa ukitzen ez badu, beharrezkoa izango da igeriketari buruz gutxieneko ezagutzak izatea.

Sorosleari dagokio igerilekuan ordenari eta segurtasunari eustea. Hori dela eta, haren aginduak bete behar dira une

oro.

Soroslea igerilekuaren esparruan ez badago, erabiltzaileak ezin dira uretan sartu.

Igerilekua irekitzeko ordua baino lehen, erabiltzaileak ezin dira aldageletan sartu.

Erabiltzailearen batek uretan bere segurtasunean eragina izan dezakeen gaixotasunik badu (bihotz-gaixotasunak, epilepsia, etab.), jakinaren gainean ipini behar du soroslea.

Zuzenean edo, uraren bidez edota elementu pasiboaren bidez (kortxo-ilarak, bereizleak, igeriketa-oholak, etab.), zeharka erraz kutsa daitezkeen gaixotasunak dituzten pertsonen debekatuta izango dute bainu-gunean sartzea.

Derrigorrezkoa da bainu-txanoa, txankletak eta bainu-jantzia erabiltzea.

Derrigorrezkoa da igerilekuak erabili aurretik eta ostean dutzatzea.

Derrigorrezkoa da luzetara igeri egitea, kortxo-ilarek mugatutako guneeetan.

Instalazioetan dauden flotagailuak eta igeriketa-oholak ikastaroetan erabiltzeko dira. Erabiltzaileek elementu horiek erabiltzea eska dezakete, eta sorosleak arautuko du elementu horien zein biltegian dagoen materialaren erabilera.

Erabiltzaileek gune hauek errespetatuko dituzte: Ermuko UKEk igeriketa-ikastaroak edo monitoreek zuzendutako beste edozein ur-jarduera egiteko markatutako guneak.

Monitoreek, sorosleak edo igerilekuko beste langileren batek eskatuz gero, bainulariak berehala irtengo dira uretatik.

Debekatuta dago kaleko arropa edo oinetakoak jantzita igerilekuetara sartzea, bai eta hondartzetan eta bainu-gunean oinutsik ibiltzea ere. Arau hori kirolari eta bainulariei aplikatuko zaie, bai eta haiekin doazenei ere.

Debekatuta dago igerilekuetako ur-laminan erabiltzaileak gogai ditzaketen objektuak sartzea (baloiak, koltxonetak, etab.), Ermuko UKEk egokitzat hartzen duen kasuetan izan ezik; esaterako, animazio-kanpainetan. Igeri egiteko betaurrekoak erabiltzea, berriz, baimenduta dago.

Debekatuta dago hegats, igeriketako eskularru, neoprenozko jantzi eta elementu flotatzaileak erabiltzea. Dena den, eta medikuaren aginduz, Ermuko UKEko zuzendaritzak elementu horiek erabiltzeko baimena eman dezake, zenbait kasutan.

Haurren igerilekuan, flotagailu, burbuila eta mahukak erabili daitezke.

Segurtasuna dela eta, debekatuta dago igerilekuetako ur-laminan kaleko betaurrekoak erabiltzea.

Debekatuta dago igerilekuen esparruan igeri egiteko balio ez duten gauzak erabiltzea.

Debekatuta dago igeri egiteko balio ez duten arropak edo objektuak uretara botatzea edo uretan sartzea.

Igerilekuaren esparruan, hau dago debekatuta: buruz murgiltzea; uretara jauzi egiteko korrika egitea; bultzatzea; kortxoilaretan jesartzea edo haietatik helduta egotea; txiklema mas-tekatzatzea; makilatuta, krema jarrita edo edozein motatako apositua jarrita uretan sartzea; txistu egitea; txiza egitea; eta, oro har, beste erabiltzaileak gogaitu edo ur-laminaren kalitatea txikitu dezaketen jarduera guztiak.

Igerilekua kaletan banatuko da, eta kale horiek erabiliko dira, ordu-programazioaren arabera. Programazio hori argi eta garbi adieraziko da igerilekuan bertan. Kaleen erabilera-denbora eta kale-kopurua aldatu, mugatu edo bertan behera utzi daitezke, okupazioa eta/edo zerbitzuaren beharrak direla medio. Oro har, hiru kale erreserbatuko dira helduen igerilekuan, gehienez ere. Haurren igerilekua ez da kaletan banatuko.

Kaleak honetarako programatuko dira: ikastaroak egiteko, ikastetxeentzat, kirol-entrenamenduak egiteko, erabiltzaileek igeri egiteko eta bainu libererako. Hortaz, erabiltzaile bakoitzak dagozkion kaleak eta ordutegiak erabili beharko ditu, igerilekuak ahalik ondoen aprobetxatze aldera:

Erabiltzaileek igeri egiteko kalea

- Kalearen eskuinaldetik egin behar da igeri, eta gelditu barik. Atsedean hartzeko, ezin dira kalearen muturrak erabili. Atsedean hartu nahi duen erabiltzaileak bainu libreko kalera irten beharko du.
- Erabiltzaileek igeri egiteko kale bat baino gehiago programaturik balego, erabiltzaile bakoitzak bere ustez daukan mailari dagokiona erabili beharko luke, beste erabiltzaileei trabarik ez egiteko.

Bainu libreko kalea

- Edozein modutan igeri egiteko erabil daiteke, betiere, gainerako erabiltzaileak gogaitu gabe eta igerileku estalien araudia betez.
- Oholak erabiliz ariketa egin nahi duten pertsonak bainu libreko kalea erabili behar dute, azkarrago igeri egiten dutenei trabarik ez egiteko.

32. artikulua.— Gune hidrotermala

Zerbitzu hori 14 urtez gorako erabiltzaileentzat da.

Gehienez ere, hogei minutuz erabil daiteke gune hidrotermala.

Ezinbestekoa da uretan sartu aurretik eta ondoren dutxa-

tzea, instalazio horren higiene-baldintzei euste aldera.

Irrist ez egiteko, oso garrantzitsua da arretaz ibiltzea, zorua bustita baitago.

Uretan sartu eta irteteko, eskailera eta eskubandak erabili behar dira. Ermuko UKE ez da istripu edo erorketez arduratuko. Hori dela eta, arren eskatzen die erabiltzaileei kontu handiz ibiltzeko, zorua bustita baitago.

Derrigorrezkoa da bainujantzia, txankletak, eskuoihala eta bainu-txanoa erabiltzea.

Gune hidrotermalaren ezaugarriak direla eta, behar-beharrezkoa da bainulariek jokabide egokia izatea, beste pertsonen asaldurarik edo enbarazurik ez egiteko

Une oro, soroslearen eta instalazioko langileen aginduak zein informazio-kartelak hartuko dira aintzat.

Arau horietako edozeini kasu ez egiteagatik erabiltzailearen batek istripurik izanez gero, haren ardura izango da.

Ermuko UKE ez da istripu edo erorketez arduratuko. Hori dela eta, arren eskatzen die erabiltzaileei gune horretan kontu handiz ibiltzeko.

33. artikulua.— Sauna eta lurrun-bainua

Zerbitzu horiek 16 urtetik gorako erabiltzaileentzat dira. Hala

ere, adin horretatik beherakoek ere erabil dezakete, baldin eta medikuak agindu badie eta adindun batek lagunduta badaude. Edonola ere, behar hori dokumentu bidez frogatu behar da.

Zerbitzu hori erabiltzeko, eguna eta ordua erreserbatu behar dira harreran, aldeztu aurretik. Gehienez ere, erabiltzaile bakoitzak 3 erreserba egin ditzake astean, eta bat egunean.

Gehienez ere, 6 pertsonak erabil dezakete aldi berean.

Derrigorrezkoa da ur epelez eta xaboiz dutxatzea saioaren aurretik eta ostean, bai eta, transpirazioa hobetze aldera, ondo lehortzea ere.

Ezin da edari alkoholdunak hartu ondoren erabili.

Ezin da ariketa fisiko bizia egin eta berehala erabili.

Ezin da elikagairik hartu eta 90 edo 120 minutu igaro arte erabili.

Tratamendu farmakologikoa egiten ari diren erabiltzaileek zerbitzu medikoan kontsultatu behar dute.

Pertsona hauek debekatuta dute zerbitzu hori erabiltzea: haurdun dauden emakumeek; eta infekzio-gaixotasunak, gaixotasun baskularrak, bihotz-gaixotasunak, barizeak eta hipotentsioa duten pertsonak. Hilekoa izan bitartean ekidin.

Derrigorrezkoa da eskuoihala, bainu-jantzia eta dutxako zapatilak edo txankletak erabiltzea.

Ez da komeni saunaren barruan 15 minutu baino gehiago jarraian egotea. Guztira, ordu erdiz erabil daiteke, gehienez ere. Erreserbatutako ordutegia errespetatu behar da, eta garaiz iritsi.

Saio bakoitzaren ostean, dutxa hotza hartzea eta minutu batzuk atsedean hartzea gomendatzen da.

Arnasketa-arazoak dituzten pertsonak arretaz erabili behar dute.

Zerbitzu horiek erabiltzeko, eguna eta ordua erreserbatu behar dira harreran, aldeztu aurretik. Gehienez ere, erabiltzaile bakoitzak 3 aldiz erreserba dezake zerbitzu bakoitza astean, eta behin egunean.

Debekatuta dago erretzea, jatea, edatea eta sendagaiak hartzea. Horrez gain, debekatuta dago irakurtzea, paperak usain txarra baitu barruan.

Ez da hitz egitea komeni, arnasketa eta zirkulazioa kargatu egiten baitira.

Ezin da inola ere likidorik isuri, ez eta produktu sukoirik –hala nola, espraiak eta koloniak– eta irakurgairik (liburuak, egunkariak...) sartu ere. Halaber, oso arriskutsua da saunaren barruan arropa sartzea lehortu dadin.

Ezin da plastikozko arroparik erabili, horrelako jantziek izu-garrizko deshidratazioa eta arteria-presioaren bat-bateko jaitsierak eragiten baitituzte. Ezin da betaurreko metalikorik, bitxirik edo bestelako objektu metalikorik jantzi, erredurak eragin baititzakete. Ezin da ukipen-leiarrak jantzita sartu.

Debekatuta dago krema, gorputz-olio, apar, usain-kengarri eta depilazio-produktuak erabiltzea, bai eta, oro har, instalaziotik kanpoko produktu guztiak ere.

Ezin da zerbitzu horietan sartu jarduera fisikoa egiteko erabiltako arropa jantzita (maillotak, azpiko arropa, etab.)

Zeharo debekatuta dago igerilekuaren esparrua saunarekin eta lurrun-bainuarekin komunikatzen duen bidea bainujantzia jantzita, bustita edo txankletak jantzita.

Aholku horiez gain, zentroko langileek behar bezala azalduko diete erabiltzaileei nola erabili zerbitzu horiek. Kasu partikular bakoitzean, jarraibide zehatzak emango dituzte.

Ermuko UKE ez da istripu edo erorketez arduratuko. Hori dela eta, arren eskatzen die erabiltzaileei gune horretan kontu handiz ibiltzeko.

Informazio gehiago nahi izanez gero, zerbitzuko arau eta gomendioak arretaz irakurtzea gomendatzen da. Udal Kiroldegiko harreran daude, erabiltzaile orenen eskura.

34. artikulua. — UVA izpien kabina

Zerbitzu hori 18 urtez gorako erabiltzaileentzat da.

Gomendagarria da saioaren aurretik eta ostean dutxatzea.

Zerbitzu hori erabiltzeko, eguna eta ordua erreserbatu behar dira harreran, aldeztu aurretik. Gehienez ere, erabiltzaile bakoitzak 3 erreserba egin ditzake astean, eta bat egunean.

Derrigorrezkoa da babes-betaurrekoak erabiltzea.

Ezin da kabinan makilatuta edo beste produktu kosmetikoren bat jarrita sartu.

Gehienez ere, saio bat egin daiteke egunean. Gehienezko erabilera-denbora 8 minutukoa izango da, saio bakoitzean.

Botikak hartzen ari diren pertsonak ez dute erradiazio ultra moreen eraginpean jarri behar. Zalantzarik izanez gero, konfiantzazko medikuari galdetu behar zaio.

Ez da komeni eguzkitan egotea saioa egin behar den egun berean.

Gomendatzen da ura edatea kabina erabili baino lehen eta ondoren.

Beharrezkoa da lehen bi esposizioen artean 48 igarotzea. Epe hori errespetatu behar da.

Haurdun dauden emakumeek eta adinez txikiek debekatuta dute zerbitzu hori erabiltzea.

Debekatuta dago edari alkoholduinak hartu eta gero zerbitzu hori erabiltzea.

UVA izpien kabina txarto erabiltzea kaltegarria izan daiteke: zenbait larruazal-minbizi, begi-lausoak eta erreakzio fotoa-lergikoak eragin ditzake.

Araudi honetan ezarritakoaz gain, 1002/2002, Errege Dekretuan, irailaren 27koan, jasotakoari ere jarraituko zaio. Errege-dekretu horren bidez, erradiazio ultramoreen bidezko brontzetatze-gailuen salmenta eta erabilera arautzen da.

Informazio gehiago nahi izanez gero, zerbitzuko arau eta gomendioak arretaz irakurtzea gomendatzen da. Udal Kiroldegiko harreraren daude, erabiltzaile oren eskura.

35. artikulua. — Fitness-aretoako arau komunak

Fitness-aretoan sartzeko gutxieneko adina 16 urtekoa da.

Fitness-aretoa erabiltzen hasi aurretik, beharrezkoa da elkarriketa egitea aretoako monitore arduradunarekin. Aldez aurretik hitzartu behar da zer egunetan eta zer orduetan egin elkarriketa hori, Udal Kiroldegira telefonoz deituz edo aretoan bertan. Elkarriketa horretan, monitoreak erabiltzaileari jakinaraziko dio zer ariketa egin ditzakeen, zer makina eta

tresna erabil ditzakeen, eta zer hartu behar duen kontuan ariketak egiten hasi aurretik.

Fitness- eta muskulazio-aretoako langile monitoreek funtzio hauek dituzte: programak egitea, bilakaera kontrolatzea, zalantzak argitzea, aholkuak ematea eta ariketak egiteko modua zuzentzea. Gomendagarria da aholkuak eta laguntza eskatzea, entrenamendu segurua egiteko eta makinak behar bezala erabiltzeko. Makinaren baten funtzionamenduari buruzko zalantzarik izanez gero, komeni da hura ez erabiltzea.

Fitness-aretoako erabiltzaileek eskubide hau dute: monitorek lan fisikoko plan pertsonal bat egin diezaieten. Plan hori noizean behin berritu eta eguneratuko da, monitoreak libre dauden heinean.

Higienea dela eta, derrigorrezkoa da makina eta aparatuetan eskuoihal bat erabiltzea. Instalazioko langileek aretotik irteteko eska diezaiekete eskuoihalik ez duten erabiltzaileei.

Makina bat erabili ostean, hura lehortu eta izerdia garbitu behar da, eskuoihalaz edo aretoan eskura dagoen paperaz.

Aparatu bakoitza behar denerako erabili behar da; hau da, haren baldintza teknikoak hartuko dira aintzat, eta ezin dira aldatu.

Debekatuta dago makinaren pisu librea erortzen uztea.

Debekatuta dago honela entrenatzea: kaleko arropa jantzita; elastikorik gabe; eta sandaliak, txankletak eta kaleko oinetakoak jantzita. Klean erabili ez diren kiroletarako jantziak eta oinetakoak erabili behar dira. Kasu horretan, langileek areto-tik irteteko eska diezaiekete eskuoihalik ez duten erabiltzaileei.

Ur-botila bat eramatea komeni da.

Nork bere gauzak armairu batean utzi behar ditu. Ezin da aretoan kirol-poltsarik, motxilarik, poltsarik edo objektu pertsonalik (giltzak, telefonoak, dirua...) utzi.

Erabiltzaile asko daudenean, gehieneko denbora bat ezarri da; hain zuzen ere, kasu horretan, erabiltzaile bakoitza 20 minutuz egon daiteke gehienez ere makina kardiobaskular batean.

Aparatu bat erabiltzen amaitu eta gero, hura eta haren osagarriak ordenan eta bere lekuan utzi behar dira. Makina eta aparatuak erabiltzaile batek baino gehiagok erabiltzen dituztenez, debekatuta dago serieen arteko atsedenetan haiek okupatzea.

UKEko langileek aretoan sartzea, aparatu edo makina jakin batzuk erabiltzea, edo zenbait ariketa egitea galaraz diezaiekete edozein erabiltzaile, baldin eta uste badute berarentzat, gainerako erabiltzaileentzat edo materialarentzat arriskutsua izan daitekeela.

Behar-beharrezkoa da nork bere higie pertsonala zaintzea.

36. artikulua.— Muskulazioko oinarrizko gimnasioa

Muskulazioko oinarrizko gimnasioan sartzeko gutxieneko adina 16 urtekoa da.

Ermuko UKEko abonatuak soilik erabil dezakete areto hori.

Higie-arrazoiengatik, aparatuetan derrigorrezkoa da eskuoihala erabiltzea eta ur-botila eramatea komeni da.

Debekatuta dago ariketak aretotik kanpo egitea eta aparatuak handik ateratzea.

Gimnasioa erabiltzen duten pertsonak aitortzen dute areto horretan ariketa fisikoa egiteko fisikoki gai direla eta gimnasioko ekipamenduak behar bezala erabiltzen badakitela.

Gimnasio honetako erabiltzaileak beren arriskuaren eta erantzukizunaren pean sartzeko dira.

Ermuko UKEk ez du inolako ardurarik izango, gimnasioko erabiltzaileek hura erabiltzean istripurik badute edo lesionatzen badira.

37. artikulua.— Pertsona federatuentzako muskulaziogimnasioa

Talde federatuetan dauden eta Ermuko UKEko abonatuak

diren pertsonak soilik erabil dezakete areto hori. Muskulazioko oinarrizko gimnasioan sartzeko gutxieneko adina 16 urtekoa da.

Higiene-arrazoiengatik, aparatuetan derrigorrezkoa da eskuoihala erabiltzea eta ur-botila eramatea komeni da.

Debekatuta dago ariketak aretotik kanpo egitea eta aparatuk handik ateratzea.

Aretoa erabiltzeko, taldeko pertsona arduradunak giltza eskatu behar du aldagela-kontrollean. Giltzaren orde, NANA utzi beharko du. Esleitutako erabilera-denbora bukatzean, giltza itzuli beharko du.

Taldeko entrenatzaile arduradunak izango du aretoko ekipamenduaren eta pertsonen ardurak. Horrez gain, une oro egon beharko du aretoan, eta erabiltzeko materiala jasotzen dela egiaztatatu.

38. artikulua. — Jarduera zuzenduen aretoak

Instalazio horiek Ermuko UKEk araututako jarduerak egiteko soilik erabiltzen dira.

Klaseak behar bezala gara daitezten, zuzendaritzak programazioa ezarriko du. Horretan aldaketarik eginez gero, alde zuzenetik jakinaraziko die erabiltzaileei. Jende gutxi dagoen aldietan, ordutegi murriztua ezarriko da, jarduerak ahalik ondoen garatze aldera.

Ezin da aretoak bakarka edo taldeka monitorerik gabe erabili, ez eta materiala eta musika-tresnak baimenik gabe erabili ere.

Saioen maila eta kalitatea bermatzeko, komeni da aretoetan sakelako telefonoak ez sartzeko.

Derrigorrezkoa da eskuoihala erabiltzea eta ur-botila eramatea komeni da.

Ezin da beroketa-aldian huts egin, eta garaiz iristea eskatzen da. Ordena dela eta, eta lesio-arriskua txikitze aldera, ezin da aretoan sartu klasea hasi eta 10 minutu igaro badira.

Erabiltzaileek ziurtatu behar dute beren egoera fisikoa bat datorrela saioaren mailarekin eta zailtasunarekin.

Erabiltzailearen batek ondoezik, zorabiorik edo zerbait arrarorik nabaritzen gero, berehala jakinarazi behar dio monitoreri.

Oinetako egokiak jantzi behar dira, lesioak prebenitzeko.

Saioa amaitu ostean, ezinbestekoa da luzatze-ariketak egitea. Hortaz, gomendatzen da aretotik ez ateratzea ariketa horiek egin arte.

Debekatuta dago klasean zehar txikleka jatea.

Klase batera lehen aldiz joaten diren erabiltzaileek jakinaren

ganean jarri behar dute monitoreak, eta hark lehen jarraibideak emango dizkie.

Indoor txirrindularitzako oinetakoak bizikleta ganean soilik erabil daitezke. Ainguraketa metalikoak dituztenez, debekatuta dago oinetako horiek jantzita zuzeko zoruan ibiltzea, hondatu egiten baitute.

Debekatuta dago, indoor txirrindularitzako bizikleta bat erreserbatzeko, haren ganean objekturik jartzea (eskuoihailak, bidoiak, botilak, etab.). Hots, erabiltzaileak bizikleta ganean egon behar du, jarduera bizikleta horrekin egingo duela bermatzeko. Monitoreek bizikletan jarritako objektuak kentzeko ahalmena dute, baldin eta erabiltzailea bizikleta ganean ez badago.

39. artikulua.— Frontoiak eta squash-aretoak

Gehienez ere, 4 pertsonak erabil dezakete frontoia aldi berean. Squash-aretoak, berriz, 2 pertsonak erabil dezakete aldi berean, gehienez ere.

Pista bakoitzeko gehienezko erabiltzaile-kopurua handitu egin daiteke, Ermuko UKEk araututako jardueretan.

Frontoietan, beharrezkoa da kaskoa erabiltzea zestapuntako eta palako espezialitateetan, eta gomendagarria, begi-babesgarriak erabiltzea squashtan eta frontoian aritzeko.

Derrigorrezkoa da kiroletako oinetako eta arropa egokiak jantzea, instalazioetan sartzeko.

Ezin da elastikoa erantzita egon frontoietan eta squash-aretoetan.

Squash-areto bat erabiltzeko, goma zuriko zolarik gabeko kiroletako oinetakoak erabili behar dira.

40. artikulua.— Atletismo-pista eta jauzietarako modulu estalia

Atletismo-pista eta jauzietarako modulu estalia erabiltzeko, arau hauek bete behar dira:

- a) Ermuko UKEk antolatutako jarduerak lehentasuna dute beste edozein organismoren aurrean.
- b) Bigarrenik, atletismo-klubek jarduerak nagusitu dira (entrenamenduak, lehiaketak, etab.).
- c) Hirugarrenik, erabiltzaileek erabiliko dute.

Erabilera-ordutegiak aurretik adierazitako hiru puntuek sortzen dituzten jardueren arabera erabakiko dira.

Ezin da pista behar ez bezala erabiltzea. Esate baterako, ezin da koltxonetan jolastu edo etzan, eta jauzi-hobietako harearekin jolastu eta eguzkitan jarri.

Kale eta gune atletiko bakoitzaren erabilera-arauak hartu behar dira aintzat. Egunero zehaztuko dira gune horiek, entrenamenduen arabera. Atletismoaz bestelako kiroletako taldeek azken kaleak baino ez dituzte erabiliko.

Edozein entrenamendutan edo lehiaketatan, martxaren norabidea pistarena izango da.

Debekatuta dago oihuka egitea edo garrasika hitz egitea, kirolariak ez gogaitzeko.

Atletismorako egokiak diren oinetakoak erabiliko dira. Iltzedun oinetakoen kasuan, 6 mm luze izango dira iltzeak, gehienez ere.

Lehiaketa-egunetan, pistak itxita egongo dira lehiaketan parte hartzen ez duten erabiltzaileentzat. Lehiaketako ordu-tegiak behar bezala adieraziko dira.

41. artikulua. — Eskalada-murrua eta boulder-a

Segurtasuna dela eta, instalazioan sartzeko eta hura erabiltzeko, beharrezkoa da Mendi Kiroletako eta Eskaladako Lurralde Federazioko lizentzia sarreran erakustea, eta lizentzia horrek aurtengo urtekoa behar du izan.

Eskalada-murruan eta boulderrean sartzeko gutxieneko adina 16 urtekoa da. 16 urtetik beherako pertsonak adindun arduradun batekin egon behar dute, bai eta atal honetan aipatzen diren baldintza guztiak bete.

Gainera, 18 urtez beherako pertsonak aitaren, amaren eta tutore legalaren idatzizko baimena behar dute, bai eta adindun arduradun batekin egon ere.

Beharrezko agiri guztiak ez dituzten pertsonak ezin dute instalazioa erabili, eta sartuz gero, irten egin beharko dute. Gainera, horren berri emango zaie goiko instantziei.

Horma erabiltzeko behar den material teknikoa (eskalatzeko oinetakoak, eskalatzeko soka, arnesa eta zintak mosketoiekin, zortzia ...) norberak ekarri behar du. Derrigorrezkoa da material hori erabiltzea, eta behar bezala erabili behar da.

Debekatuta dago elkarren ondoko bi bide erabiltzea, arrisku-tsua da eta.

Ezin dira heldulekuak askatu edo ibilbideak aldatu, Ermuko UKERen aurretiko baimenik gabe. Erabiltzailearen batek zerbait arraro ikusiko balu (askatutako heldulekuak, apurtutako aseguruak, jokabide irregularrak, etab.), instalazioko langileei jakinarazi beharko lioke.

Instalazioa erabiltzeko Ermuko UKERen baimena duten klubetako edo alpinismo- edo espeleologia-elkarteetako kideak entrenatzen diren bitartean, klub eta elkarte horiek arduratu beharko dute segurtasun-arauak betetzen direla egiaztatzeaz.

Gehienez ere, 6 pertsonak erabil dezakete eskalada-murrua

aldi berean, eta boulderraren kasuan, 10 pertsonak erabil dezakete aldi berean.

Jende asko dagoenean, 20 minutuz erabil daiteke instalazioa gehienez ere.

Atsedean hartzen ari diren erabiltzaileek hormatik irten behar dute, beste pertsonak ere erabil dezaten.

Ezin da inola ere lerro gorria sokarik erabili gabe gainditu.

Jarduera egiten ari diren erabiltzaileak soilik egon daitezke aretoan.

Ezin dira erabiltzen ez diren bideak okupatu.

Eskalada-teknika menderatzen ez duten pertsonen top rope teknika erabiltzea gomendatzen zaie; hau da, soka gainean dutela eskalatzea.

A) Boulderra

Boulderreko erabiltzaileek beren arriskuaren eta erantzukizunaren pean erabiliko dute instalazioa. Ermuko UKEk ez du inolako ardurarik izango, boulderreko erabiltzaileek hura erabiltzean istripurik badute edo lesionatzen badira.

Instalazioa erabiltzeko, behar-beharrezkoa da material eta jantzi egokiak erabiltzea (eskalatzeko oinetakoak eta kirole-tako arropa).

Debekatuta da heldulekuak edota ainguralekuak manipulatzea (kentzea, jartzea edo aldatzea), eta ibilbideak edo zeharkaldiak markatzea. Horren inguruko iradokizunak Ermuko UKErri egin dakizkio, haiek aztertu eta, egokiak badira, kon-tuan har ditzan.

Debekatuta dago hauts-magnesioa erabiltzea.

Segurtasuna dela eta, debekatuta dago babes-koltxonetak lekuz aldatzea. Eskalada-murruaren azpian egon behar dute beti.

Debekatuta dago boulderraren goialdeko plataformara igotzea, itxiera-estalkiak ezin baitie ez pisuei ez kargei eusten.

Ermuko UKEk programatutako jarduerak eta/edo antolatutako ekitaldi garrantzitsuek lehentasuna izango dute bana-kako edo behin-behineko erabilera guztien aurrean. Beraz, erabilera horiek alda daitezke, beharren arabera. Hori eginez gero, nahikoa aurrerapenez jakinaraziko dira.

B) Eskalada-murrua

Gehienez ere, 3 kordada egon daitezke aldi berean (2 per-sona kordada bakoitzean).

Derrigorrezkoa da grigria edo zortzia erabiltzea segurtasun-korapilo gisa.

Derrigorrezkoa da bideko ainguraleku guztiak erabiltzea, bat ere ahaztu gabe.

Zeharkaldian berotzeko eskalada eta sokarik gabeko eskalada lehen aseguru-lerroaren azpiko heldulekuetan egingo dira.

Soka bat soilik erabil daiteke jaitsiera bakoitzean.

42. artikulua.— Belar artifizialeko zelai handiak

14 urtetik beherako pertsonak ezin dute erabili, baldin eta haien ardura duten adindunekin ez badaude.

Jolas-zelaia mantentzeko arauak errespetatuko dira.

Entrenamenduetan, debekatuta dago ikusleak harmailetan egotea. Salbuespen gisa, entrenamendu-orduetan, taldeetako zuzendariak egon daitezke harmailetan. Dena den, egiaztagiria edo Ermuko UKEren berariazko baimena erakutsi beharko diete instalazioaren ardura duten pertsonari, nor diren frogatzeko. Gainera, instalazioaren erabilera-arauak hartu beharko dituzte aintzat, une oro.

Partidu-egunetan, dela ofiziala dela lagunartekoa, itxita egongo da gainerako erabiltzaileentzat. Behar bezala adieraziko da zer ordutan egongo den itxita, partidua hasten denerrako ahalik egoerarik onenean egon dadin.

43. artikulua.— Bilera-gelak

Instalazio horietan, batzar, mintegi, ikastaro, aurkezpen eta bilera egingo dira bereziki.

Klub eta kirol-elkarteek soilik erabil ditzakete gela hauek, baimena eskatuta. Halaber, Ermuko UKE antolatutako ekitaldietarako ere erabiliko da.

44. artikulua.— Pabilioi estaliak

Haietan, instalazioaren azpiegitura dela eta egin daitezken kirol guztiak praktika daitezke. Kirolez gain, beste edozein jarduera egin daiteke, baldin eta erabiltzaileentzat arrisku-tsua ez bada eta Ermuko UKEren materiala hondatzen ez badu.

Jarduera eta kirol bat baino gehiago egin daitezke aldi berean. Horretarako, gortina berezileen bidez banatuko da aretoa. Kirol-lehiaketa ofizialak egiten direnean, berriz, ezin da jarduera edo kirol bat baino gehiago egin.

Kirol-ikastaroak ematen diren bitartean eta entrenamenduetan, debekatuta dago ikusleak harmailetan egotea. Salbuespen gisa, entrenamendu-orduetan, taldeetako zuzendariak egon daitezke harmailetan. Dena den, egiaztagiria edo Ermuko UKEren berariazko baimena erakutsi beharko diete instalazioaren ardura duten pertsonari, nor diren frogatzeko. Gainera, instalazioaren erabilera-arauak hartu beharko dituzte aintzat, une oro.

Ezin dira harmailak eta pasilloak berotzeko edo entrenatzeko erabili.

45. artikulua.— Altzari eta tresnen alokairua

Beste erakunde edo pertsona batzuek erabil ditzakete Ermuko UKEren zenbait elementu, erabilera-ezaugarri bereziak baitituzte. Erakunde eta pertsona horiek elementu horiek aloka ditzakete, unean-unean erabakitako tasa ordainduta.

Elementu horietako bat alokatzeko, idatziz eskatu behar da. Eskariarekin batera, pertsona edo erakunde eskatzaileak bere identifikazio-datuak eman behar ditu, bai eta erabili beharreko elementuari dagokion fidantza ere.

Zenbait elementu muntatu egin behar dira. Ermuko UKEk muntaketa hori egitea ezar diezaikeke pertsona, erakunde edo enpresei. Kasu horretan, muntaketa-lanen edo erabili beharreko materialen garraioaren kostua pertsona edo erakunde eskatzailearen kargura izango da.

46. artikulua.— Kiroletakoak ez diren ekitaldietarako alokairuak

Atal honek hau du xede: kultura-jarduerak, ezohizko kirol-ekitaldiak eta kiroletakoak ez diren jarduerak egiteko, instalazioak erabili nahi dituzten pertsona, erakunde eta enpresen eskubide, betebeharrak eta erabilera-baldintzak arautzea.

Pertsona fisiko edo juridiko, kirol-elkarte eta erakunde aitortu guztiek dute instalazioak erabiltzeko eskubidea, kirol-jardueraz bestelako jarduerak egiteko. Horretarako, Araudi hau bete eta erabilera-tasak ordaindu behar dituzte.

Instalazio bat egun jakin batean erreserbatzeko prozedura hau da:

1.- Instalazioa eta eguna eskatzeko, idatzizko eskaera egin behar zaio Ermuko UKEri. Eskaera horretan, eskaera egiten duen erakundearen edo pertsona fisikoaren datuak adierazi behar dira (erakundearen kasuan, izena, helbidea, IFK, legezko ordezkaria, telefono-zenbakia...). Ezinbestekoa da pertsona arduraduna nor izango den adieraztea, bai eta zer material eta teknika behar diren, eta ekitaldiaren azken xedea zein den ere. Gainera, musika-jaialdia izanez gero, argi eta garbi adierazi behar da zein den abeslari edo musikatalde nagusia.

2.- Ermuko UKEk idatziz erantzungo dio aurkeztutako eskaerari, 20 laneguneko epean, gehienez ere. Eskatutako data libre egonez gero, eskatzaileak bost egun balioudun izango ditu, erantzunaren egunetik, aurre-erreserba egiteko.

Epe horretan, erreserba baliozkotzat hartzeko jarritako tasa-aurrerakina ordaindu beharko du.

Tasa-aurrerakina ez bada epe horretan ordaintzen, aurre-erreserba ez da gauzatuko, eta data libre geratuko da berriro ere.

Tasa-aurrerakin gisa ordaindutako zenbatekoa itzuliko du Ermuko UKEk, baldin eta eskatzaileak ekitaldia bertan behera uzten badu. Itzultze-eskala hau erabiliko da: 15 egun lehenago, zenbatekoaren % 100; 7 egun lehenago, zenbatekoaren % 70; eta 7 egun baino gutxiago, zenbatekoaren % 20.

3.- Ermuko UKEk beretzat gordetzen du bere instalazioak ez lagatzeko ahalmena, aldezturik onartutako eskaera bat egin dutenei kalte ez egiteko.

4.- Onartutako ekitaldia egin eta 15 egun lehenago, gutxienez ere, pertsona eskatzaileak hau egin beharko du:

a.- Bilera teknikoa egin instalazioen ardura duen pertsonarekin, eta beharren inprimakia bete.

b.- Ordenantzan instalazioa alokatzeko ezarritako fidantza eman, eskudirutan edo banku-taloi adostu bidez, Ermuko UKEren bulegoetan.

c.- Erantzukizun Zibileko poliza bat Ermuko UKEren alde aurkeztu, bai eta poliza ordaindu izanaren egiaztatzea ere. Poliza horren zenbatekoa kontratua zehaztu eta lagapen-idazkian jakinaraziko da.

d.- Instalazioaren lagapen-kontratua sinatu.

5.- Ekitaldia hasi eta 48 orduko aurrerapenez, eskatzaileak

Eusko Jaurlaritzako Joko eta Ikuskizun Zuzendaritzak emandako kopia emango du Ermuko UKEren bulegoetan.

6.- Ekitaldia amaitutakoan, pertsona eskatzaileak hasierako baldintzetan utzi behar du instalazioa, hura libre uzteko adierazitako ordutegia errespetatuta. Ekitaldia amaitzeko ordutegiari dagokionez, Eusko Jaurlaritzak agindutakoa beteko da.

7.- Ekitaldia amaitu eta 5 egun balioudun baino lehen, pertsona eskatzaileak tasa ordaindu behar du, aurrerakina kenduta.

8.- Instalazioan kalterik ez dagoela edo, kalterik egonez gero, eskatzailearen aseguruaren kontura konpon daitezkeela egiaztatuta ostean, fidantza itzuliko zaio eskatzaileari.

Halaber, eskatzaileak bere gain hartuko ditu ekitaldia egitzean sortzen diren gastu guztiak.

Halaber, tasaren gainerako zenbatekoa adierazitako epean ordaindu ezean, kenketa egingo da zenbateko horretan.

Sortutako gastuak fidantzaren zenbatekoa baino handiagoak badira, eskatzaileak zenbateko horretatik gorako gastuak ordaindu beharko ditu.

Gasturik ez badago eta erreserba bertan behera uzten bada, fidantza osorik itzuliko da, tasa-aurrerakina ez bezala. Aitzitik, jarduera bertan behera geratu arren gasturik sortu bada,

fidantzak estaliko du, eta gastuek fidantzaren zenbatekoa gaindituz gero, eskatzaileak ordaindu beharko ditu.

9.- Sustatzaileak ez du ikuskizunari ez dagokion publizaterik ipiniko, eta ez ditu aurretik dauden iragarkiak estaliko, eszenatokiaren atzekoak salbu. Esparruan saltzeko eskubidea instalazioari baino ez dagokio, eta eskubide hori ez dago arau honek aipatzen duen lagapenaren baitan. Horrenbestez, sustatzaileak konpromisoa hartzen du saltokirik ez jartzeko, ez instalazioko esparruan, ez Ermuko UKEk mugarrিতako sarbideen gunean.

10.- Erakunde sustatzailearen kontura izango dira baimen eta lizentziak eskatzeko izapideak eta gastuak. Gainera, egile-eskubideak ere ordaindu beharko ditu, bai eta instalazioko esparruan ekitaldia egiteko behar diren Estatuko, probintziako eta udaleko zerga guztiak ere.

Honako hauek ere erakunde sustatzailearen kontura izango dira: ekitaldi aurreko publizitate-gastuak eta publizitate horri dagozkion zergak; aulkiak alokatzeko, jartzeko eta kentzeko gastuak; energia elektrikoaren gastuak; instalazioak pistarik balu, hura estaltzeko moketa jartzeko, kentzeko eta garbitzeko gastuak; ate eta txartel-leihatiletako langileen ordain-saria; eszenatokia eta tribuna gehigarriak muntatzeko, desmuntatzeko eta garraiatzeko gastuak; eta aurretik aipatu ez diren ordainketa eta gastu guztiak, baldin eta haiek ordaintzea Ermuko UKEren betebeharra ez bada.

Instalazioan pista estaltzeko moketarik ez badago, sustatzaileak

leak ordainduko ditu hura alokatzeko gastu guztiak.

11.- Ermuko UKEk hau ordainduko du: lagapenaren aldian zehar instalazioko langileek beren ohiko ordutegiaren barruan emandako orduak. Halaber, eskubide hau gordetzen du beretzat: sustatzaileari esatea zein enpresak muntatu behar dituzten moketa eta eszenatokia, zein enpresak garbitu behar duen esparrua. Zerbitzu horiek sustatzaileak ordainduko ditu.

12.- Ermuko UKEk adieraziko du zenbat pertsona behar diren segurtasun-zerbitzuan, ateetan eta txartel-leihatiletan, bai eta non egongo diren ere, ikusleen sarbidea kontrolatzeko eta haien lekuan kokatzeko. Antolatzaileak bere kontura kontratatuko ditu langile horiek, ekitaldian zuzenean edo zeharka parte hartzen duten guztiak legez.

13.- Erakunde sustatzaileak eskubide osoko enpresa izan behar du, eta kontratatutako ekitaldia antolatzean parte-hartze aktiboa duten pertsona guztien nagusia. Gainera, ikuskizunera joandakoen ekintzen ondorioak ere bere gain hartuko ditu.

14.- Erakunde sustatzaileak konpromisoa hartzen du segurtasun-gunea baimendu gabeko ibilgailurik eta oztoporik gabe izateko.

15.- Jendea esparruan sartzeko ateak ekitaldia hasteko aurreikusita dagoen ordua baino ordu erdi lehenago zabalduko dira, gutxienez.

16.- Instalazio bakoitzean ezarritako edukiera hartuko da kontuan; alegia, ezin da ezarritakoa baino ikusle-kopuru handiagoa sartu.

LAUGARREN TITULUA DIZIPLINA-ERREGIMENA

X. KAPITULUA. ARAU HAUSTEAK ETA ZEHAPENAK. ZEHAPEN PROZEDURA

47. artikulua.— Hutsegiteak eta zehapenak

Araudi honetako arauak ez betetzeak zehapena dakar berekin. Ermuko UKEk ezarriko du zehapen hori, eskumeneko organoaren bitartez, zerbitzu teknikoen txostena aztertu ondoren. Zer zehapen jarri erabakitzeko, jarraian azaltzen den hutsegite- eta zehapen-sailkapena hartuko du kontuan, bai eta prozedura ere.

48. artikulua.— Hutsegiteak

Instalazioak erabiltzen dituzten pertsonen hutsegiteak arinak, larriak eta oso larriak izan daitezke.

A) Hutsegite arinak:

Eginda eta ez eginda ere instalazioen funtzionamendua eteten ez dutenak eta hartan eragina ez dutenak, eta gai-

nera, azkar konpontzen direnak.

Instalazioetako informazio-karteletan jendaurrean jarritako arauak ez betetzea.

Beste erabiltzaileak edota Ermuko UKEko langileak adeitasunik gabe tratatzea, betiere, hori larritzat hartzen ez bada.

Araudi honetan ezarritako betebeharrak edo debekuak ez betetzea eragiten duen jokabide oro, larritzat edo oso larritzat hartu ezin denean, 7/1985 Legearen, apirilaren 2koaren, Toki-erregimenaren oinarriak arautzen dituenaren, 139. artikulua araberako (57/2003 Legeak, abenduaren 16koak, Toki-gobernua modernizatzeko arauari buruzkoak, aldatua).

B) Hutsegite larriak:

Instalazioen funtzionamendua galarazten duten guztiak, baldin eta egun berean konpon badaitezke eta hirugarrenei kalte egiten ez badiete.

Urtebetean hiru hutsegite arin egitea.

Instalazioak erreserbatu, alokatu, izena eman edo lagapena edo baimena lortu gabe erabiltzea.

Abonatuen zerbitzuak erabiltzea edo ikastaroetan parte hartzea, dagozkien tasak ordaindu gabe.

Titularra ez den beste pertsona bati hauek ematea: abonatu-

txartela, alokairu-titulua, bonu pertsonala, txartel magnetikoa, instalazio-lagapena, izen-ematearen ordainagiria edo baimena.

Nortasunari, adinari eta osasun-egoerari buruzko datuak nahita faltsutzea, edo beste pertsona baten ordeztzea.

Identifikatzeari uko egitea, Ermuko UKEko langileek hori eskatu eta eskaera horren arrazoia azaltzen dutenean.

Instalazioetan eta haietako materialean kalteak eragitea, nahita edo zabarkeriaz.

Ermuko UKEko langileei irain larriak egitea.

C) Hutsegite oso larriak:

Instalazioen funtzionamendua galarazten duten guztiak, egun berean konpondu ezin daitezkeenak eta hirugarrenei kalte egiten dietenak.

Urtebetean bi hutsegite larri egitea.

Ermuko UKEko langileei edo beste erabiltzaileei eraso egitea, fisikoki zein hitzez.

Beste pertsona batzuei ondasun edo objektuak ostea, eta Ermuko UKEren instalazioen barruan iruzur egitea.

Edozein kirol-instalazio klaseak emateko erabiltzea, onura

partikularra lortzeko asmoarekin.

Jarrera lizunak izatea eta beste erabiltzaileen osotasuna arriskuan jartzen duten ekintzak egitea.

49. artikulua.— Zehapenak

Instalazioetako arduradunek hitzez ohartarazteko ahalmena dute, bai eta jokabide egokia ez duten pertsonak instalazioetatik egoztekoa ere.

Ezartzen diren zehapenak egindako hutsegitearen arabera-koak izango dira.

Hutsegite arinen kasuan, zehapen hauek ezarri dira:

- Idatzizko ohartarazpena eta
- 1 eta 50 euro bitarteko isuna.

Hutsegite larrien kasuan, zehapen hauek ezarri dira:

- 51 eta 500 euro bitarteko isuna eta
- Egun bat eta bi urte bitartean erabiltzaile- edo abonatu-eskubideak kentzea.

Hutsegite oso larrien kasuan, zehapen hauek ezarri dira:

- 501 eta 1.000 euro bitarteko isuna eta
- erabiltzaile- edo abonatu-eskubideak aldi baterako kentzea eta/edo kirol-instalazioak erabiltzeko

behin betiko debekua.

Zehapena jasotzeaz gain, kalte materialak eragiten dituzten erabiltzaileek ordaindu egin beharko dituzte. Ermuko Udalak betearazpen-bidez kobra dezake zorra.

Edonola ere, erabiltzaile- edo abonatu-eskubideak aldi baterako edo behin betiko kentzeak ez du esan nahi ordaindu-tako zenbatekoa itzuliko denik.

Kirol-txartelaren, ikastaroen, jardueren eta zerbitzuen ordainagiriak zein isunak ordaintzen ez badira, Ermuko Udalak premiamendu-prozeduraren bidez eska dezake haiek ordaintzea, horretarako dituen zerbitzuen bitartez.

Hutsegitearen larritasunaren maila eta dagokion zehapena erabakitzeke, hau hartuko da kontuan: intentzionalitatea, nahasmendua, eragindako kalteak, berrerortzea eta partaidetza-maila. Gainera, Ermuko UKEk uste badu aurrez adierazitako ekintzek erantzukizun penal edo zibilak daudela, ekintza judizialetara joko du.

Araudi hau ikuskatzea, zaintzea eta kontrolatzea Ermuko UKEren ardura da. Salaketak zehapen-txostena irekitzeko bidea emango du.

Behin zehapen-txostena hasita, Ermuko UKEren instalazio eta zerbitzuak erabiltzeko esklusioak (Araudi honetako VIII. kapituluan jasota daude) ezar dakizkie arau-hausleei; hala nola, instalazioetan sartzea debekatzea, eta lagapenak,

baimenak, kirol-txartelak, alokairuak, eta ikastaro eta jardueretako izen-emateak etetea.

Premiazkoa edo larria izango balitz, eskumeneko organoak behin-behineko eta legezko neurriak har litzake, beharrezkotzat hartuz gero.

50. artikulua.— Zehapenen preskripzioa

Hutsegite arinak sei hilabete igaro eta gero preskribatuko dira; larriak, bi urtera; eta oso larriak, hiru urtera.

51. artikulua.— Hutsegite larriak edo oso larriak zehatzeko prozedura

Prozedura hori ofizioz hasiko du eskumeneko organoak, bai bere ekimenez, bai salaketaren bat dela medio.

Araudi honen ondorioetarako, hau esan nahi da prozedurari hasiera emateko eskumena duen organoak bere ekimenez jardun dezakeela esatean: hutsegitea izan daitekeen jokabideren edo gertaeren baten berri zuzenean edo zeharka izanez gero, jarduteko ahalmena duela. Salaketa dela medio ere jardun dezake organo horrek, pertsonaren batek administrazio-organuari ematen badio administrazio-hutsegitea izan daitekeen ekintzaren baten berri.

Salaketetan, hau adierazi behar da: salaketa nork jartzen duen pertsonaren nortasun-datuak, hutsegitea izan daitezkeen ekintzen kontakizuna eta noiz gertatu ziren, eta ahal

izanez gero, zer pertsonak egin zituzten.

Salaketa bat jartzen denean, salatzaileari jakinarazi beharko zaio prozedurari hasiera emango zaion ala ez.

Prozedurari hasiera eman aurretik, zenbait jarduera egin daitezke, prozedurari hasiera emateko arrazoiak dauden ala ez erabakitze aldera.

Jarduera horiek Ermuko UKEko administrazio-organoei egingo dituzte.

Zehapen-prozeduren hasiera formalizatzeko, eduki hau erabiliko da, gutxienez ere:

- Ustez hutsegitea egin duen pertsonaren edo pertsonen izen-abizenak.
- Prozedura irekitzea eragiten duten gertaeren kontakizun laburra, kalifikazioa (arina, larria edo oso larria) eta zehapenak, izapideetan ondorioztatzen dena alde batera utzi gabe.
- Txostenaren izapidegilea eta txostena ebazteko eskumeneko organoa.
- Eskumeneko organoak zehapen-prozedurari hasiera emateko aldi baterako adostutako neurriak.
- Txostena aztertzeke epea eta alegazioak.

Prozedurari hasiera emateko akordioa izapidegileari, salatzaileari eta salatuari jakinaraziko zaie. Jakinarazpenean, hau adieraziko die pertsona interesdunei: epean alegaziorik egin

ezean, hasiera ebazpen-proposamentzat har daiteke, leporatutako erantzukizunari buruz erabaki zehatza hartzen bada.

Pertsona interesdunek hamabost eguneko epea izango dute egokitzen hartzen dituzten alegazio, agiri eta informazioak emateko, bai eta, dagokionean, frogak proposatzeko ere. Kasu horretan, erabili nahi dituzten baliabideak zehaztu behar dituzte.

Alegazioak errekerituta edo aurreko paragrafoan adierazitako epea amaituta, organo izapidegileak frogaldi bat hastea ados dezake, 30/92 Legearen, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen, 80. eta 137.4. artikuluetan xehatutakoaren arabera. Aldi hori hamabost eguneko izango da.

Pertsona interesdunei akordio horren berri emango zaie. Desegokiak diren frogak atzera bota daitezke, 30/1992 Legearen 137.4. artikuluan ezarritakoari jarraituz.

Organo izapidegileak egokitzen hartzen dituen frogak 30/1992 Legearen 81. artikuluan adierazten denaren arabera aztertuko dira.

Aintzat hartutako frogak prozeduran hartzen den erabakiaren oinarria izan daitezkeenean, ebazpen-proposamenean sartu beharko dira.

Behin frogak lortuta, organo izapidegileak ebazpen-proposamena egingo du. Horretan, frogatutako gertaerak,

hutsegitea eta pertsona arduradunak adieraziko dira, eta zehapena proposatuko.

Ebazpen-proposamena pertsona interesdunei jakinaraziko zaie.

Proposamena berehala helaraziko zaio eskumeneko organoari, agiri guztiekin batera, prozedura ebatz dezan.

Presidenteak ebazpen arrazoitua emango du, ebazpen-proposamena eta agiriak jaso eta hamar egunera, gehienez ere, eta ebazpen horren berri emango die pertsona interesdunei.

Pertsona interesdunek gora jotzeko helegitea aurkez dezakete Kontseilu Errektorean.

Prozedura hasi eta sei hilabetera ebazpena emango ez balitz, eta atzerapen horretan interesdunek inolako erantzukizunik izango ez balute, prozedura iraungi egingo litzateke, 30/1992 Legearen 44.2. artikulua arabera.

52. artikulua.— Hutsegite arinak zehatzeko prozedura

Prozedurari hasiera ematen bazaio, organo izapidegileari eta pertsona interesdunei jakinaraziko zaie.

Prozedurari hasiera emateko akordioaren berri eman eta 10 eguneko epean, organo izapidegileak eta pertsona interesdunek egokitzen hartzen dituzten alegazio eta agiri guztiak

eman beharko dituzte. Gainera, frogak eta haiek lortzeko baliabideak proposa ditzakete.

Epe hori amaituta, eskumeneko organoak ebazpen-proposamena emango du, Araudi honen 45. artikulua arabera.

Gertaerak hutsegite larria edo oso larria izan daitezkeela uste izanez gero, izapide orokorra egiten jarraitzea adostuko du. Ondoren, jakinaren gainean jarriko ditu pertsona interesdunak, 5 eguneko epean frogak proposa ditzaten, egokia dela uste badute.

Jarduerak 45. artikuluan araututakoaren arabera jarraituko dute.

Eskumeneko organoak 5 eguneko epean emango du ebazpena.

Prozedura hasi eta 2 hilabetera ebatzi behar da, gehienez ere. Bestela, iraungi egingo da.

BOSGARREN TITULUA AZKEN XEDAPENAK

53. artikulua.— Artikulu osagarriak

Zenbait zerbitzuren erabilera arautzeko, beharrezkoa izan daiteke artikulua gehiago eta zabalagoak egitea, erabiltzaileek

hobeto uler dezaten.

54. artikulua.— Ebazpenak

Hasiera batean, Araudi honetan aintzat hartu ez diren kasuei dagokienez, instalazioko pertsona arduradunak ebatziko ditu. Hala ere, kasu partikularren kasuan, haien berri emango zaie Ermuko UKEko zuzendaritzari, ebatz ditzan.